

Gehigarri berezia
Doneztebeko feria → 10-13

BERA → 17
Kafe antzerki zikloa
azaroaren 6, 13 eta 22an

DONAMARIA → 27
Soto eta Zubeldiarekin
bertso-afaria azaroaren 7an

LEITZALDEA → 32
Gizarte Zerbitzuek mende
laurdena bete dute

SARA → 38
Garagardoaren besta
azaroaren 7an egingen da

Beharrezko obrak egin ahal izanen ditu Baztan Ikastolak

Hamabortz, Ama bat lelopean, jendetza bildu zen Baztanen urriaren 18an. Behin-behineko kalkuluak egin ondotik, lortutako diru-sarrerekin eraikinetan beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko aukera izanen dutela aurreratu dute koordinatzaileek. Gozotik adina gazitik ere izan du ordea bestak, ustezko sexu eraso batek ilundu baitu 2015eko Nafarroa Oinez besta.

→ 55



Baztan futbol taldea

Emakumeak ere zelaira



90 urteko historian, lehenbizikoz emakumeen taldea zelairatu du **Baztan futbol taldeak**. Lehen partida, urriaren 17an jokatu zuen Giltxaurdin, Lesakako Beti Gazteren kontrako derbia.

ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Gainezka egiteko arriskua

Esne kuotak desagertzeak, asko zaildu du esne ekoizle txikien jarduna. Esnearen prezioa jaitsi eta lehengaiak garestitu direnez, nahikoa lan dute gastuak ordaindu eta soldata duin bat lortzeko. Urdazubi, Erratzu, Donamaria eta Urrozko lau ekoizlerekin bildu da TTIPI-TTAPA; egoerak gainezka egiteko esne tanta heltzeaz ote dagoen jakiteko.

ERREPORTAJEA → 3-5

Sanmartinak, bestaren azken zipriztinak

Azaroaren 6tik 11ra ospatuko dituzte Aurtizko bestak, eskualdeko azkenak. Eta Aranon ere, sanmartin egunez, historiari keinuka, megali-toen bueltan ekitaldiak prest dituzte.

→ 25 eta 30

TTIPI-TXARTELA



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo
idatzi info@ttiipi.eus-era





Ekitaldien gaineko informazioa
012 telefonoan eta www.berakoagenda.eus




berako agenda

azaroa

BERAKO XVII. KAFE ANTZERKI ZIKLOA 2015

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Berako Kultur Batzordea

6

ortziralea

EKOETIKOPATETIKOBIKOA
(Atea taldea)
22:00
Ikuilu Ostatuan

13

ortziralea

ADARRETATIK ZINTZILIK
(Gilkitxaro taldea)
22:00
Bidaxka Ostatuan

22

igandea

DESENTXUFATUAK
(Ez Dok Hiru taldea)
19:00 • Xuga Ostatuan

15

igandea

HAURRENTZAKO DANTZA IKUSKIZUNA:
Nor da otsoaren beldur?
(Fueradeleje dantza konpainia)
17:30 • Kultur Etxean • Sarrera: 3€

20

ortziralea

ANIZTASUNAREN INGURUKO KONTAKETA (Pello Añorga)
Denak ezberdinak, bakoitza beharrezko
6-12 urte • 17:30 • Liburutegian

21

larunbata

MUSIKA KONTZERTUA:
Tenpora Taldea
20:00 • Kultur Etxean
Sarrera: 6€
Laguntzailea: Nafarroako Antzoki Sarea

21

larunbata

BERA KANTARI
19:00 • Illekuetatik hasita

23

astelehena

SANTA ZEZILIA EGUNA
18:00 • Musika Eskolan

26 - 29

ortzeguna igandea


ERTZ JAIALDIA




DONEZTEBE

ELIZAGIBELA KALEAN

LAISTER ERAIKITZEKO



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com



ARTXIBOKO ARGAZKIA
Geroz eta lan ordu gehiago egin behar ditu esne
eskoizleak soldata duhin bat jaso ahal izateko.

GIZARTEA → ESNE EKOIZLEAK

Lan orduak goiti, soldatak beheiti

Ekoizpen kuota desagertzeak,
eskualdeko esne ekoizleen egoera larritu du

Esnearen ekoizpen kuota 1984an
jarri zen martxan Europar
Batasunean, 1960ko hamarkadatik
zetoarren arazo bati irtenbidea ema-
teko: gehiegizko esne ekoizpena.

Eskaria handitzen joan den heine-
an, 30 urteren ondoren, aurtengo
apirilean amaitu egin da Euskal
Herria eta Europa osoan behi esne-
ari zegokion kuota sistema.

Garbiñe ALTUXU

Esne kuota desagertzearen ondorioz, ganadutegiek ez dute inolako muga administratiborik nahi adina esne ekoizteko. Orain arte Europak urtero gehienezko muga ezartzen zuen eta muga hori gainditzen zuenak, isuna ordaindu behar zuen. Europar Batasunak eskaria handi-

tu dela ikusi du, esportazioek %45 egin dute gora 2010az geroztik, batez ere Asiara eta, datuak ikusita, esne kuotaekin amaitzea erabaki du.

Beraz, esne ekoizle guztiek, handiek zein txikiek, nahi beste edo ahal beste esne ekoizti ahal izanen dute. Ganadutegi handiek kantita-

te gehiago ekoizteko gaitasuna dute. Hortaz, esnea merke saltzeko ekoizle txikiek baino aukera gehiago dituzte.

Mendialdeko eta hegoaldeko herrietan, ganadua elikatze baliabide gutxiago daude, lurralde malkartsuagoak edo lehorragoak direlako. Beraz, bertako ekoizleek pentsu gehia-

PREZIOAK

Pentsua, gasolioa, albaitaria,... geroz eta garestiagoak dira. Esne saltzaileen soldatak, ordea, duela urte batzuetako berdinak.

go erosi behar dute. Lurralde hauetan esne litro bakoitza ekoizteko gastua handiagoa da. Europa ekialdean, berriaz, soroak zelaia goak dira eta pentsu gutxiago behar dute. Beraz, esne gehiago ekoizteko dute.

Gure inguruko nekazariak esnea ekoizteko arunt ongi prestatuak dauden arren, produktua erosten dien inor edo prezio duin bat eskaintzen dien inor ez badute, lana baserritik kanpo bilatzea bertze aukerarik ez dute izanen.

Pentsua, gasolioa, albaitaria,... geroz eta garestiagoak dira, baina esne saltzaileen irabaziak duela urte ba-

tzuetako berdinak dira. Kuotarik ez dagoenez, esne asko ekoizten duten enpresa edo herrialdeek, euren produktua merke saltzen dute eta honek merkatuko prezioa jaitsi egin du. Enpresa erosleak, beraz, nekazariari prezioa jaisteko eskatzen dio eta ondorioz, gastuak ordaindu eta soldata duin bat izateko aukera ia ezinezko bilakatzen da. Nekazariak ez du preziorik erabakitzen; ez erosten duenarena, ezta saltzen duenarena ere.

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, gaur egun 192 ekoizle daude probintzian eta 24 hilabete baino zaharragoak diren 25.800 behi. Nekazari guzti hauek, esnea ekoiztu eta animaliak zaintzeaz gain, gure herrietako paraje eta txokoak eder bezain txukun mantentzen dituzte. Nekazari gazteak ere badira, behar baino gutxiago, ordea.

Ixabel BENGOTXEA IBARROLA | URDAZUBI

«Aunitzetan diferentzia izugarria izaten da guk saldutako eta dendan saldutako prezioetan»



NOR DITUGU?

- **Adina:** 59 urte
- **Esne-ekoizle** 28 urtez
- **Behi kopurua:** 30

Esne ekoizleak «ukuiluan beti egon behar du, egunero. Goizetan bi ordu eta arratsaldean bertze bi ordu egiten dut lan, derrigor. Honetaz aparte, bertze lanak ere hor daude. Ez daukat besta egunik». Orduak egunero errespetatzea da gogorre-na «jezteko orduak, adibidez. Goizeko 7etan behiak jetzi behar baditut adibidez, ezin dut nekatua nagoelako 10ak arte lotan gelditu. Hori da arazoetako bat». Esne ekoizle munduarekiko ilusioa daukan seme bat du «behiak maite ditu eta etxean laguntzen du, baina kanpoan lan egiten du. Esne behien lanari jarraipena eman arren, kanpoan lan pixka bat ere egin beharko luke soldata duina jasotzeko nahi badu». Kaikuri saltzen diote esnea «urtean 200.000 litrotik gora». Litro aunitz dira, baina «erosi behar ditugun gauzak izugarri garestiak dira; tresnak, gasolioa,... Gainera, ez dira lehengo garai berdinak. Orain, lizentziak behar ditugu, dena egunean eduki behar dugu. Bertzela multak, prezioan deskontuak eta komeriak etorriko dira». Ekoizpen kupoa kendu dute eta «ez dakigu zer gerta-

tuko den. Oraindik ez dut aldatarik sumatu, baina beldur naiz. Ez dakigu esnea zein prezioan geldituko den». Diru laguntzak jasotzen dituzte, «Bruselatik prima batzuk ematen dizkigute eta urte batzuetan jasoko ditugula ziurtatu digute, baina ondotik ez dakigu zer etorriko den». Esnea ekoizten bizi aunitz atera dira aurrera Nafarroan, «baina etorkizuna ez dakigu nolakoa izanen den».

«Ez dira lehengo garai berdinak. Orain, lizentziak behar ditugu, dena egunean eduki behar dugu. Bertzela multak, prezioan deskontuak eta komeriak etorriko dira»

Esnearen prezioari dagokionean, «erosleek dendetan, gauza guztiak bezala, esne merkeena erosten du. Baina hori ez da esnea». Esne ona ez du Kaikuk bakarrik saltzen, «dendetan esne ona ere badago, baina ongi begiratu behar da zer erosten eta kontsumitzen ari garen». Nahiz eta ez duen esnerik erosten, «aunitzetan guk ekoiztutako esnea zenbatean saltzen den begiratzeko da. Eta bidean gastuak badi dira dakidan arren, diferentzia izugarria izaten da guk saldutako eta dendan saldutako prezioetan».

Jose Antonio URRUTIA ETXEBERRIA | ERRATZU

«Salmenta prezioa ez dugu sekula erabaki. Erosleek erabakitzen dute»



NOR DUGU?

- **Adina:** 52 urte
- **Esne-ekoizle** 30 urtez
- **Behi kopurua:** 90

«Egunean hamar ordutik gora egiten dut lan. Tarteka ordu batzuk libre hartzen ditut, anaiak laguntzen didalako, baina egunero joaten naiz ukuilura. 90 behi inguru dauzkagu eta 2.500 litro ekoizten ditugu gutxi gora behera egunean». Erratzuko baserrian ekoiztutako esnea Danoneri saltzen diote, «kamioia bi egunetik behin etortzen da esnea biltzera». Danonek esnea Madrilera eramaten du zuzenean eta gero «jogurtak egin da, bueltan etortzen da Euskal Herrira. Ez du esnerik saltzen». Euskal erosleek bertako produktuak erosteko gonbitea luzatzen die, baina «zaila da, nire kasuan, adibidez, hemen ekoiztutako esnea izan arren Madrilera doalako». Semeak eduki badauzka, baina «oraingoz ez dute lan honetarako afizio handirik erakutsi». Beraz, segida oraingo behintzat, ez dago ziurtatua. Esne ekoizpenaren kuota kendu dute eta «erosketaren prezioak behera egin du, hori argi dago, baina ez dakit esne kuota aitzaki moduan erabiltzen duten. Nahi dutena egiten dute». Zentralek eta saltoki handiek dena kontrola-

tzen dute. «Esne saltzaileek kontratu bat dugu, ezertarako balio ez duena. Hala ere, kontratu hau sinatzen ez badugu, ez dute gure esnea biltzen». Sinatzen derrigortuta dauden kontratu honetan hainbat baldintza eskatzen zaizkie ekoizleei «esneak zein kalitate izan behar duen, adibidez». Baina jasoko duten prezio finkorik ez da zehazten, «kalitatearen arabera aldatzen dute hiru hilabete-tik behin». Merkatuan dagoen prezioarekin erabakitzen da esne litroaren balioa eta hau behin eta berriz aldatu egiten da. Salmenta prezioa «ez dugu sekula nekazariak erabaki. Eurek jartzen digute prezioa, hala izan da beti. Azken batean, lau zentral dira eta euren artean adosten dute kostua».

«Kontratu bat dugu, ezertarako balio ez duena. Hala ere, sinatzen ez badugu, ez dute gure esnea biltzen»

Nahiz eta salmenta prezioa erosleek erabakitzearekin ados ez egon egoerak horrela segitzen duen bitartean esne ekoizleek ez dute beste irtenbiderik, «guk, norbaiti saldu behar diogu ekoizten dugun esne guztia, beraz, prezio hori onartu behar dugu derrigor».

Mariado ITURRALDE MIGELTORENA | DONAMARIA

«Denon inplikazioa behar dugu. Egungo nekazariak mantentzeko eta berriak animatzeko»



NOR DUGU?

- **Adina:** 51 urte
- **Esne-ekoizle** betidanik
- **Behi kopurua:** 65

«Beti izan ditugu esne behiak, baina hemen akitzen da, ez dugu inor ondotik. Lehen herriko etxe guztietan zituzten esne behiak eta pixkanaka denak desagertzen joan dira». Abereak zaintzeaz gain, «baserria bera eta familia ere zaindu behar dira». Egunean 1.400 litro inguru ekoizten dituzte Donamariako Utxunean «Kaikuko bazkide gara eta betidanik saldu diogu esnea». Nekazariak gu gara, baina erosi eta saltzen dugun guztiari prezioa jartzen diote, guk ez dugu ezer erabakitzen. Pentsa nolako egoera, aspaldiko prezioak kobratzen segitzen dugu».

«Edozein lekura joan eta nekazari bat ikusten badut sekulako poza hartzen dut! Izugarria iruditzen zait. Bizia da.»

Kuota libratu denetik, «badaude esne litroa merkeago ateratzen dutenak eta haiek produkzioa goratu egin dute. Zentrallak merkatua merke dagoela erraten digu, baina nik ezin dut merkeago saldu, nire kostuak ez baitira merketu». Nafarroan

esne litro aunitz ekoizten dira, «hala ere, ez dugu gehiago irabazten; gutxiago ordaintzen den litro gehiago saldu eta horrela gutxi gora behera soldata berdina jasotzen dugu. Ederki kontrolatzen gaituzte. Lan bikoitza eginda diru kopuru berdina irabazten dugu». Euskal erosleei «bertako produktuak erosteko erranen nieke. Merkeena erosten dugunean gure baserriak ixtera bultzatzen dugu. Bertako ekonomia desagertuz, herriak hustuz eta ingurua itsustuz. Alderantziz jokatuta, herriak eta bailarak mantentzen laguntzen dugu. Denon inplikazioa behar dugu. Egungo nekazariak aitzinera segitzeko eta berriak animatzeko». Nekazariak kontzientziatuta daude. «Hau ez da baserri baten arazoa, ez da Kaiku edo Danoneri esnea ematea. Nekazari guztien arazoa da. Batzuei besteei baino diru gehiago ordainduta ez da ezer lortzen». Nekazarien lana oso gutxi baloratzen da orokorrean. «Nik, nekazari bezala, edozein lekura joan eta nekazari bat ikusten badut sekulako poza hartzen dut! Izugarria iruditzen zait. Bizia da. Baina baserriko lana zer den ez dakienak...» Bere garaian «ilusio handiarekin hasi ginen, baina egoera kaxarra eta soldata duinik ez badugu, kanpora lan egitera joatea behartuta egonen gara».

Manolo JUANENA AROZENA | URROZ

«Edozein akats egiten badugu, soldatan deskontua egiten digute»



NOR DUGU?

- **Adina:** 57 urte
- **Esne-ekoizle** 30 urtez
- **Behi kopurua:** 70

«Gaztetik nabil esne behiekin lanean, soldaduskatik itzuli nintzenetik. Goizeko 7ak inguru altxatu eta ukuilura joaten naiz. Ondotik, 9etan gosalduta bueltatzen naiz. Astez ordu aunitz egiten ditut eta asteburuan lasaia ibiltzen naiz». Egunean «1.800 litro inguru ekoizten ditugu». Behiekin jarraitzeko, «alaba bat eta bi seme dauzkut. 21 eta 23 urteko semeak asteburutan ukuiluan ibiltzen dira, interesa badute. Ikusi beharko da zein soldata ateratzen diren». Oraingo gutatzen zaie, baina «gogoko lana izanda ere, ez bada soldata duinik jasotzen, edozein hozten da». Esne kuota jarri zirenean denak deskonforme zeudela gogoratzen du «baina anbizioa zuen jendeak berdin igo zuen produkzioa modu batera edo bertara». Orain kuota libre utzita, «deskonforme gaude berriz ere». Kuota librearekin «produkzioa igotzeko gure ingurua baino hobekien diren tokiak daude. Horiek produkzioa gu baino errazago altxa dute eta produkzioa igotzearekin batera, prezioa jaitsi egin da».

Soldata zenbatean geratzen den ikusi beharko da orain». Soldata duin bat behar da, «esne behiak jartzea eta ekoiztea erraza da».

«Gogoko lana izanda ere, ez bada soldata duinik, edozein hozten da»

Gehiegizko esne ekoizpena ematen bada, «badira non saldu ez duten esne litro batzuk koste prezioan saltzen ari direnak eta minimo bat exijitu behar dugu». Nekazari lana «gustuko baduzu, kontrolatzea ez da hain zaila. Gaur egun esne behiekin bizi garenak nahiko profesionalak gara. Hagitz ongi egin beharreko lana da. Edozein akats egiten baldin badugu, deskontua daukazu prezioan». Errebisioak pasatzen dituzte «sei hilabetetik behin batzuek, urtero bertze batzuek. Makina guztiak ongi daudela ziurtatzeko». Jende gaztea ere ikusten da esne ekoizpenean, «baina gehiago beharko luke. Nahiko jende heldua geratzen ari gara. Animatu gazteak! Nahiz eta lan lotua izan, gaur egun elkarlanean egin daitekeen lana da. Zure kabuz ibil zaitezke eta ez dizu inork agintzen. Lan guztiak bezala, gauza onak eta txarrak dauzka. Eguneroko lana da, baina gustukoa baldin baduzu, hagitz lan polita da!».



Nire txanda
Koro IRAZOKI

Asmakizun bat

Haizego ufada batek haritz adarrak astindu ditu eta, klaka-klaka-klaka, ezkur batzuk lurrerat erori dire. Fla-fla-fla, uso bando bat oihanean pausatu da, eta ezkur goxoak jan dituzte. Pan-pan-pan, ehiztariak tiroka, eta uso bat, danba, lurrerat erori da. Hantxe harrapatu du zakurrak, gaztain karloen artean. Gaztain karloak pittaka-pittaka edeki dire, eta gaztain ilun-eder-goxo batzuk agerian utzi dituzte. Jubilatatu bat agertu da, saskia eskutan, eta gaztainek beren itxura pulitena erakutsi diote, "hartu neri" erranez bezala. Bainan jubilatua, gaztaineri kasurik egin gabe, haratxago gan da, eta iratze tartean alajainkoa! onddo-beltx baratze bat aurkitu du... Afal ondotik, jubilatua beranduxago erretiratu da ohera, gau huntan ordularia oren bat gibelatu behar dela eta, lo egiteko nahiko denbora izanen baitu. Guzti hau asmakizun bat da: urteko ze sasoinean gaude? Asmatu duzue: urteko sasoin pulitenean gaude, udazkenean!

«Asmatu duzue: urteko sasoin pulitenean gaude, udazkenean!»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Bizipoz zapuztuak

Familiak oinarrizko balioak erakusten omen ditu; ikastetxeak bertze ikasgaiak. Zerk huts egiten du nerabe batek bertzea bortxatzen duenean? Heziketak? Familiak? Gizarteak? Besta ere duak? Oraingoan, neskato baten bizipoza ez ezik, urte luze batean auzolanean gogor eta gogoz aritu den herri baten bestondo zoriontsu eta harro-tasunez betea izan behar lukeena ere zapuztu du.

Nabarmentzekoak



Kotto ALTZUGUREN
Heriotzaren 10. urtemuga

Beratarra espetxean hil zela 10 urte bete behar direnean, hura gogoratzeko zenbait ekitaldi antolatuta dituzte astebururako sorterrian eta Berako udalak mozioa ere onartu du.



Enaitz ANTZO
Nafarroako txapeldun

Nafarroako Kirol Jolase-tako gazte mailako buruz buruko txapelketa irabazi du oronoztarrak. Urriaren 12an Labriten jokatutako finalean 18-14 irabazi zion Iker Salaberria goizuetarrari.



Alex MUGIKA
Euskal Herriko pintxo onena

Leitzarrek aurkeztutako *Markalao* pintxoak irabazi du Hondarribian jokatu den Amstel Oro-Euskal Herriko Pintxo Txapelketa. Sari nagusia ez ezik, bertze bi sari ere lortu zituen.

Atzera begira → 2000-XI-2 / TTIPI-TTAPA 289 zk.



Jabier Biurrarena lurperatzailearekin solasean

Domisaindu Egunaren inguruan, Jabier Biurrarena lurperatzailearekin solastu zuen Ttipi-Ttapa duela 15 urte. «Neretzat problemarik latzena atakatik kanpora da, biziak» aipatu zigun Arantzan sortu eta sorterrian ez ezik, Igantzin eta Beran lurperatzaile izandakoak. Biurrarenak zioenez, «jendeak sobera bel-dur die hilei, nik uste hilek ez dutela bueltarik. Hemen ez da inor agertzen, inor mugitzen, inor ez da keizaten». Hil berriei lur-eman zien lehen alditan gaizki pasatu omen zuen, baina «bertze lanetan bezala, denborarekin horretara ere jartzen zara, mentalizatuz gero», zioen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Aranxa Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Alzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Laralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEK NA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA



Prentsatik bildutakoak



«Eratsunen adibidez bazen tradizio handia, mahai inguruan kantzeko. Bederatzi hila-betez mendian edo basoan lanean ibilitakoak herrira itzultakotan, hiru astez egoten ziren han, kantuan, goizez eta arratsalde. Ohitura horiek galduko ziren beldur, kantu zaharren eguna antolatzen hasi nintzen. Hori guztia Euskal Herriko historia ere badelako».

Angel MARIEZKURRENA
Kantu Zaharren Eguna ant.
NAF. HITZA • 2015.10.09



«Txikiak handi' da Nafarroa Oinezen filosofia, euskara ere munduan hizkuntza txikia delako, baina handi egin nahi duguna. Zuhaitzekin gauza bera, bi zuhaitzok [pago-lizarra eta loroa] jendeak ez ditu ezagutu ere egiten, eta hemen daukagun altxor bat dira. Ardura hartu behar dugu altxor hori zaintzeko eta espezie horiek bizkortzeko».

Manolo LIZARDI
Oinez Basoa arduraduna
ARGIA 2015.10.11

11 galdera labur

Nor da Ibai Berregi?

Aurtizko 25 urteko mutil gazte eta arrunt bat.

Zein afizio dituzu?

Kirola orokorrean. Baina azken urtean lasterka munduan murgilduta nabil.

Laisterka egitea koldarren gauza dela dio esakerak...

Esaera horrela da bai, baina laisterka dabilenari erran behar koldarra den... kar, kar, kar.

Nondik edo norengatik joanen zinake ziztu bizian ihes?

Buff hainbeste dira... Indarrak gordetzen joanen naiz aukera iristen denerako.

Bestatik bueltan ziur ez duzula horrenbertzeko presarik...

Horretan aitortu beharra dut inoiz ez dudala presarik izan. kar, kar, kar...

Entrenatzeko ibilbide politena?

Etetik Mendaur kasko-ra joan-etorria.

Behobia-Donostia joareekin edo lasterka nahiago?

Lasterka, joareekin aurretik Ituren-goek egina dute eta berriz egiteak ez du xarma berdina izango.

Laguna bidean eroriz gero, laguntzera geratu edo lasterketa irabaztera?

Laguna laguntzera dudarik gabe. Lasterketa egun bateko da, lagunak betirako.

Lasterka, asfalto gainean edo mendirik mendi?

Bietan ibiltzen naiz, nahiz eta oso desberdinak izan bi modalitateak. Bakoi-tza bere denboraldian.

Eguneko zein momentu duzu gustukoena?

Entrenamendu on bat burutu ondoko dutxa eta lagunekin pasatako edozein momentu.

Amets bat...

Momentuko abi-zitzearekin eta osasuna izatearekin konformatzen naiz.



Ibai BERREGI → Aurtizko gaztea

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegará 25 bajo
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABEZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE

bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!

CONDOR ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

ERROTAZAR
harategia

BERTAKO
PRODUKTUAK

Eztegara, 3 · BERA
T.F. 948 630 088
info@errotazar.net
www.errotazar.net

Irakurleak mintzo

Kapeluaren gerizpean

Mari Jose ARA, Iñaki LARRAÑAGA
eta Saioa MITXELENA (Kottoren
lagunen izenean)

Galdera bat, falta haizen urte bakoitzeko. Hamar galdera. Hamar urte. Bertze hainbertze erantzun. Galdera aunitz ditiagu ordea, erantzuteko.

Azken 50 urteetan 10.000 tortura salaketa baino gehiago izan dira Euskal Herrian. Horietako baten protagonista zuzena izan hintzen hi, KOTTO. Bi aldiz atxilotu eta torturatua izateak hiregan, egotzera jasangaitza bilakatu zian, ordea.

Euskal memoriaren gordailua osatzen ari gaituk Euskal Herrian. Hik egin hituen bezalako urrats ttiki aunitzei esker bai gaituk hemen KOTTO. Baina batez ere, hire herrian eta lagunarteko oroitzapenetan gordeko haugu.

Mendizalea, kirolaria, bestazalea, herriarekiko konpromisoa, bertozalea, Dios tesalveak, lanerako ilusioa, Zirimola, Abertzalea, euskaldun eta euskaltzale... hori eta gehiago haizelako KOTTO.

Haur denboran, hemen baina ibiltzen al zen?

Beraien atta zena hemengoaren eta haur garaitan, beti hemen izaten ziren. Mutiko aski majua zen. Beti jostetan eta borondate handikoa.

Gonzalo. 73 urte

Gaztetan, berarekin bizitako zein oroitzapen dituzu?

Bi oroitzapen kuttun ditut: Pi-

lotan, elkarrekin aritzen ginen, binaka. Behin, txapelketa batetan, final aurrekoetara ailegatu ginen. Partiduaren egunean ordea, bera arrantzara joan zen eta hantxe utzi ninduen bakarrik. Jokatu nuen partidua baina bikoterik gabe. Ondorengo hau, berako bes-tetan izan zen. Txantren afaldu genuen eta ondotik, ostatuetan barna ibili ginen. Erretiratzeko tenorea ailegatu zenean, elkarri lepotik heldu eta etxeraino lagundu ninduen. Hori bai, gure gibeletik bertze bi lagun genituela, badazpada ere. Antzeko ideiekin baina bide ezberdinetatik segitu genuen bizitzan eta beti elkarrenganako errespetuz. Niretzako, berezia eta desberdina zen.

Fernando. 49 urte

Kirolaria beraz, pilota ez ezik futbola eta mendian ere ibiltzen zen.

Hogeitaz urte pasatxo izanen zituen, ni bere entrenatzaile hasi nintzenean. Futbolerako doa in apartak zituen. Baina, bertze gauza batzuk zituen buruan. Ordurako, sumatzen zitzaion herriarekiko zuen konpromisoa.

Kotte. 55 urte

Bai, mendia ere maite zuen. Hamabortz urte zituen elkarrekin Pantikosa eta Pirineoetan barna ibiltzen ginenean. Herriko etxean ere, lankidetzan aritzeko aukera izan genuen. Gure helburua orduan, udala gazteengana hurbiltzea baino, udalean gazteak sartzea zen. Eta hori, ederki lor-

tu zuen berak. Bere garaian, inoiz izan zen zinegotzirik gazteena zen 18 urte ingururekin. Konprometitua eta alaia. Josu. 68 urte.

Gazte gara gazte eta ez gauden konforme...

Garai hartako gazte erakundeak elkarrekin lan egin genuen. Gaur egun errealitatea den gaztetxea bezalako batekin amets egiten genuen. Baina orduan ez genuen lortu. Gazte erakunde hartan egindako harremanetik, lagun-min izatera bihurtu zen gure artekoa. Zintzoa eta leiala zen.

Joxelu. 47 urte

Herriko etxean, elkarrekin aritzeko aukera izan zenuen.

Bi legegintzaldiz aritu zen zinegotzi eta zortzi urte horietan alkate nengoen. Gazte bixia eta mugitua zela oroitzen naiz. Herriko etxean, bere gain zuen ardura hagitz interes handiarekin lantzen zuen. Herriko etxera iristen zen eguneroko posta nik, gainbegiratu ondotik, bertan uzten nuen gainerako kargudunek eskura izan zezaten. Asteaz gutienez, lau aldiz joanen zen Herriko etxera eguneko posta irakurtzera. Hori ez zuten zinegotzi guztiek egiten! Espresuki, gutunak irakurtzera joaten zen bera. Idazkariak, txukun eta ordenatuta uzten zuena, biharamunean desordenatu samar egoten zen. Zenbat aldiz galdetu ote zidan idazkariak: –Manuel, nork utzi ditu paper hauek honela? –Nik, banekien bai! Manuel. 75 urte

Berako elkarte baten sorreran ere aritu omen zen.

Zehatz errateko, Espidobaita Elkartearen lehen bileretan buru-belarri aritu zen. Elkartea sortu ondotik, bertako lehen-dakari egin zituen urte batzuk. Beti lanerako prest izaten zen. Denboran berriekin dudak orotzazpena ordea, bigarren atxilotuaren da. Beraien etxean nintzen atxilotzera etorri zirenean. Ama, bakarrik zegoen berarekin eta lagun egiten egon nintzen. Momentu haiek hagitz present ditut.

Mari Jose. 69 urte.

Bere izenaren ondoan Euskara jarritz gero?

Ba, bera eta euskararekin lotutako oroitzapen hagitz politak ditut. Baina bat aipatzeko, Bardeetara joan ginenean datorkit gogora. Ordurako, euskaltegia hasita nengoen baina ez nintzen esaldi osoa jarraian errateko gai. Txirrindulan ibiltzera joan ginen. Bezperan ordea, Tafallan besta egin genuen. Arrats osoa, biok bakarrik eta euskaraz solasean pasa genuen. A zer pazientzia zuen! Nire ahalegina ulertzeko zuen gaitasun horrek animatu ninduen euskara ikasten eta solas egiten jarraitzera.

Edorta. 49 urte

Niregana, euskaraz zuzendu zen lehenengoetakoa izan zen bera, baita euskara ikastera animatu ninduen ere. Behin ikasten hasita, euskaldunberri deitzen ninduen hurbiltasuna erakusten zidan irrifar goxo batekin.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**

Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Irakurleak mintzo

Ezarri dizkiguten mugak gainditze aldera, Lapurtarrekin harreman naturala izateko gogo berezia zuen. Eta gerora ikusi dugu, lortu ere lortu zuela, Sarako lagunak kasu.

Elena. 48 urte.

Gero, atxiloketa eta kartzela.

Hagitx gogorra izan zen. Lau egun horiek pasa eta gero berriaz ikusi nuen. Xehetua utzi zuten. Ongi jarriko zenaren esperantza izan nuen beti baina... Gero, sakabanaketa bizi izan zuen eta horren ondorioak (familiarik urrun, bide arriskua, lagunak ikusteko aukera guti eta horietako batzuk ikus-tera joateko debekuarekin...) Handik atera zenean, berriaz familiarrekin eta lagunekin gozatzeko parada izan zuen... mendia, bazkariak, solasaldiak... anitz maite zuen lagunekin egotea, baita guk berarekin egotea ere. A zer erreztasuna zuen lagunak egiteko! Euskal Herriko xoko guztietan zituen. Nik pertsonalki, oroitzapen anitz ditut berarekin bizituak baina bat nabarmentzekotan, bigarren kartzelaldian Iruñeako kartzelan elkarrekin pasatako borts egun haiek nabarmenduko nituzke. Egoera ez zen erraza baina hala ere ederra eta berezia izan zen.

Pertsona aparta, leiala, langilea... erranen nuke zorionekoak garela bera ezagutzeko aukera izan genuelakoz.

Imanol. 46 urte

Lagun bat galtzen denean...

...Betirako geratzen da zure barrenean.

Atxilotu aitzindik, bere inguruko lagunok hasiak ginen ba-koitza bere familia, haurrak... izaten. Eta espetxetik ateratzean, gehien hori nabaritu iza-

nen zuela iruditu izan zait beti. Alegia, lehengo lagun bista-egile haiek bakoitzak, bere familia, lana, etxea... zurrumbilo horretan sartuta ikusiko gintuela. Urte batzuk gibelera eginez gero aldiz, herrian burutu behar ziren zenbait ekin-tzetan elkarrekin ibili ginen denbora datorkit gogora. Ez zuen sekula ezezkorik erraten. Ber- teak bertze, orain gure arte- tik falta zaigun J.M Berasate- gi ere tartean izaten zen. Biek ala biek ere, gauzak egiteko zuten ilusioa eta ausardia azpi- marratuko nituzke. Urtean lauz- paborts bazkari egiten genitu- en elkarrekin. Gure artean ez egonda ere, mahai inguruan elkartzen jarraitzen dugu. Xo- ko berezia dute biek gure ar- tean.

Basilio. 49 urte

Ezagutu genuenok, gazteta- sunarekin lotzen dugu haren irudia. Baina egungo gazte- ok, zer irudi duzue?

Orduan nerabea nintzen. Herriko etxean ibili zen urteen oroitzapen garbirik ez dut. Bai- na aski ongi oroitzen ditut, be- re kideekin atxilotua izan ze- neko egunak. Baita aske ge- ratu eta berriro atxilo hartu zu- teneko egunak ere.

Aiala. 30 urte

Gogoan dut, karrikan barna kapelua jantzita ikusten nue- la. Dozena bat urte izanen ni- tuen orduan eta kapelua, adi- nekoek erabiltzen zuten zer- bait zela uste nuen. Bera, gaztea zen ordea. Geroztik, ni- re ingurukoei entzuna edo Eus- kal Memoria Elkarteak tortu- rari buruz ateratako liburuetan izan dut bere berri.

Eneritz. 23 urte

Leihoa

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ
(Itzulpena)

Bikote ezkonberri bat, au- zo lasaia goizean etxe berrian, kafea hartzen ari zen bitartean, emaztea leihogan ze- har oharitu zen, auzoko ema- kume bat maindireak zabal- tzen ari zela soka.

- Bai maindire zikinak, al- boko emakumea zabalitzen ari denak! Agian xaboi berria be- harko luke... Nahiago nuke la- gundu ahalko banio maindire- ak garbitzen!

Senarrak begiratu eta isilik gelditu zen. Eta horrela, bizpa- hiru egunetik behin, emazte- ak bere hitzaldia errepikatzen zuen, ondoko emakumeak maindireak eguzki eta lau hai- zetara hedatzen zituen bitar- tean.

Hilabetearen buruan, ema- kumea zur eta lur gelditu zen, ondoko andrea maindireak gar- bi-garbiak zabalitzen ari zela ikusi zuenean, eta senarrari ze- ra esan zion:

- Begira, aldameneko and- re horrek, azkenean ikasi du arropa ongi garbitzen! Auzo- ko beste norbaitek irakatsiko ote zion?

Senarrak haxe erantzun zion:

- Ez, ez, gaur goizago jaiki naiz eta gure leihoko kristalak garbitu ditut!

Eta bizitza honelakoa da. Dena, ekintzak ikusten ditu- gun leihogaren garbitasunaren arabera.

Kritikatu baino lehen, agi- an komenigarria izanen litzate- ke aztertzea ea garbitu du- gun geure bihotza, argiago iku- si ahal izateko. Orduan, ikusi ahal izanen dugu gardenki, besteen bihotzaren garbitasu- na... Zalantzarik gabe gaur... atzo baino dezente hobeki iku- sten haut.

Eskerrak eman

Maite ALTXU (Igantziko Eskolako Ostatuko Batzordearen izenean)

Aurtengo bestatan, eskola- ko guraso talde batek ostatua montatu du eskolari lagun- tzeko. Irailaren 25etik 29ra ire- kia egon da eta ederki aritu di- ra lanean.

Ohar honen bidez, ostatua montatzeko osatu zen batzor- deko kideek eskerrak eman nahi dituzte...

- Eskerrak Martin apaizari, lokala utzi duelako.

- Mila esker Txopenekuei, ataria erabiltzen uzteagatik eta "bizilagunen" zarata jasan be- har izan dutelako.

- Esker aunitz, ostatuan lan egin duten guraso eta irakas- leei.

- Eta bukatzeko, eskerrik asko ostatuan gastua egin du- zuen guztiei.

BAZTAN BIDASOKO
Ehizari buruzko XX. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Antolatzailea: Organismo Organismo
Laguntzaileak: Colaboradores Colaboradores

Urriaren 30etik azaroaren 29ra

ARANTZA | Aterpe t. 948 634 179
ARANTZA | Burlada t. 948 634 027
ARIZKUN | Ordoki t. 948 453 165
DONAMARIA | Donamariako Benta t. 948 450 708
ELBETE | Elbeteko Posada t. 948 581 519
IGANTZI | La Villa t. 948 637 290
IRURITA | Olari t. 948 452 254
ORONOX-MUGAIRE | Urgain t. 948 592 063
URDAZUBI/URDAX | Montxo t. 948 599 039


"La angustia del Taisan" | Iciar Mikelperena
Eskatu duzun platerari argazkia atera eta hartu BAZTAN-BIDASOKO EHIZA JARDUNALDIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAN. Lehiaketaren oinarriak jatebetearen eskuragarri.



ONGI
PASA
FERIAK

Rosa Seminario, 15 · DONEZTEBE · 948 450 591 · 659 884 374



ongi pasa feriak!!

T. 948 456 152

Zazpigarutze, 8 · DONEZTEBE



**FERIETAN
ZURE GOSARI ETA
BAZKARIAK
ARIZTIGAIN**
kanping-jatetxean!!



OSPAKIZUNETARAKO
MENU BEREZIAK
(Jaunartze, bataio, familia bazkariak...)



SUNBILLA | 948 450 540 | www.campingariztigain.com

Clinica Dental
IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

- Rx. Panoramikoa ·
- Periodontzia ·
- Odontopediatria ·
- Kirurgia ·
- Endodontzia ·
- PADI ·
- (Hauren hortzak zaintzeko programa)
- Profesiak ·
- Hortz-zuritzea ·

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267

LEITZA
Manuel Lasarte, 7esk.
948 610 713

DONEZTEBEKO FERIAK

Azaroaren 13an urteroko bisita



San Martin ondoko ortziraletan, azaroaren 13an, feria giroa zabalduko da Doneztebeko karriketan. Eguneke lehenbiziko hitzordua Merkatu plazaren bueltan izanen da; bertako eta inguruko aziendak jarriko dituzte ikusgai eguerdira arte eta tratuan aritzeko aukera ere izanen da.

Udazkeneko feriak, postuz postuko labirintoan sartu eta pagotxaren bila aritzeko ere aprobetxatzen dituzte aunitzek. Neguan goxo ibiltzeko jantziak, artisauro lanak, baratxuriak, lanabesak... denetarik topatuko

dute bisitariak eta taloak edota gaztainak ere jarriko dituzte salgai. Horretaz gain, elkartasunerako tarterik ere izanen da Sahararen aldeko tonbolan. Bosgarrenez, antolatuko du Saharaztanek, inguruko merkatarien laguntzarekin.

NAFARROAKO II.MAILAKO FINALA

Aizkorak zorrotz txapelaren bila

Feria egunaren parte bihurtu da dagoeneko arratsaldean egin ohi den herri kirol jaialdia. Aizkoran, arpanan... norgehiagoka bikainak ikusteko aukera izan da azken urteetan udazkeneko ferietan eta aurtengoan, Nafarroako II. mailako aizkora txapelketaren finala eta I.mailako arpana jaitsiera kanporaketa jokatu dira. Arratsaldeko 6etan hasiko da jaialdia Doneztebeko eskoletako frontoian eta 15 euro ordaindu beharko dira sarreragatik.

Hasteko Nafarroako II. mailako aizkora txapelketaren finala jokatu da. Bost aizkolari lehiatu dira, tartean bi eskualdekoak, Asier Pellejero aresoarra eta Eneko Saralegi leitzarra. Beraiekin batera, Aitor Senosiain (Olague), Manuel Kañameres (Arostegi) eta Goizeder Beltza (Etxarri Aranatz) ariko dira lanean. Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat moztu beharko dituzte.



ZERBITZU FISKALAK

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

KONTABILITATE ZERBITZUAK

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erekitzea
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrazio zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena

ZERGALAN

aholkularitza

www.zergalan.es

info@zergalan.es

Ongi pasa
feriak!

BERTZE ZERBITZUAK

- Jubilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru - laguntzak
- Negozioen bideragarritasunen eramatea

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

I. MAILAKO ARPANA JAITSIERA KANPORAKETA

Mailari eusteko azken aukera



Aizkora Finalarekin batera, lehen mailako Arpana Jaitsiera Kanporaketa jokatu da. Txapelketa irabazten duen bikoteak heldu den urtean lehen mailan moztzen segiko du; galtzen duenak berri, bigarren mailan aritu beharko du.

Batetik, Esteban eta Martin Pikabea (Gerendiain) ariko dira, aurtengo I. Mailako Arpana Txapelketan azkena sailkaturiko bikotea da hau. Bestetik berri, Adrian Berruezo (Ibero) eta Alberto Oteiza (Larrageta). Ezin izan zuten parte hartu txapelketan lesio bat zela medio eta Donezteboko aukera aprobetxatu nahiko dute. Etzanda jarritako kanaerdiko enberrari 14 epai eta zutik jarritako kanaerdikoari 4 epai egin beharko dizkiote.

Txapelketatik kanpo, jaialdia osatzeko asmoz erakustaldiak ere antolatzen dituzte. Aurtengoan emakumezkoak arituko dira aizkora euren tre-bezia erakutsiz.



BELARRA JATETXEA



Amezia · DONEZTEBE · 948 450 306 · www.restaurantebelarra.com

Ongi pasa feriak!

Sampi Aragón, S.A.

MARKA GUZIEN KONPONKETA
Mekanika | Elektrizitatea | Txapa | Pintura



948 450 354 | DONEZTEBE
sampiaragon@telefonica.net

ONGI PASA FERIAK

Mendiburu
aziendak · tratantea



Ongi pasa feriak!

608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

TABERNA ZAHARRA



UDAZKEN-NEGUOKO MODA
Gizon eta emakumeendako arropa-denda

Gortinak eta
etxerako arropak
(mantak, maindireak...)

Merkatarien karrika, 11
DONEZTEBE
Tel. 948 450 007

ESNE KUOTAK DESAGERTZEAREN ONDORIOA

Esne ekoizleen etorkizuna krisian

Gure inguruan behi esnea ekoizteko hagitz ongi prestatutako nekazariak dauzkagu, baina erosleek ezarritako baldintzen ondorioz geroz eta zailagoa egiten zaie hila-betean soldata duina lortzea. Aurtengo apirilean esne kuota ezabatu da eta honen eraginez, nekazari eta enpresa ekoizleek nahi adina edo ahal bezainbeste esne ekoizteko aukera izanen dute, mugarik gabe. Hortaz, esne kantitate handiak ekoizteko ahalmena edo bidea dutenek, merkatuko prezioa jaitsi egiten dute eta esne litroaren prezioa jaistera derrigortzen dituzte gure nekazariak ere. Kalitatea hagitz zorrotz neurtzen dute esne biltzaileek eta akatsen bat dagoenean, deskontua egiten dute prezioan. Egungo esne ekoizleak mantentzeko eta berriak animatzeko, ezinbestekoa da baldintza hauek hobetzea eta horretarako erosten ditugun produktuen kalitatean errepartzeko eskatzen dute hurbileko nekazariak, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzeko gonbitea eginez. Aldameneko taulan ikus daiteke nola egin duen beheiti esne behi kopuruak, baita migenak ere eta esan bezala, ez da kasualitatea. Esne behien kopurua %12,63 jaitsi da eta migak %10,94ean egin dute beheiti 2009. urteaz geroztik, lgantzi eta Sal-diasen desagertzeraino adibidez.

KOPURUAK BEHEITI

Esne behiak

% 12,63

MIGAK

%10,94



EDERKI tailerra



CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa feriak!

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525



Herria	ESNE BEHIAK			MIGAK			USTIATEGIA
	2009	2012	2015	2009	2012	2015	2015
Arano	0	0	0	0	0	0	0
Arantza	16	15	15	2	1	2	1
Areso	21	15	8	1	0	1	1
Baztan	2.028	1.954	1.920	641	708	637	31
Beintza- Labaien	75	73	72	18	18	15	2
Bera	75	52	28	16	9	1	2
Bertizarana	43	39	43	9	11	13	1
Donamaria	194	197	120	69	75	34	2
Doneztebe	0	0	0	0	0	0	0
Elgorriaga	0	0	0	0	0	0	0
Eratsun	0	0	0	0	0	0	0
Etxalar	14	14	6	0	0	0	1
Ezkurra	1	0	0	0	0	0	1
Goizueta	2	1	0	0	1	0	0
Igantzi	8	2	0	0	0	0	0
Ituren	94	112	110	31	32	37	3
Leitza	74	33	20	28	12	15	1
Lesaka	47	35	15	7	1	2	1
Oitz	83	133	115	34	42	46	1
Saldias	4	1	0	0	0	0	0
Sunbilla	11	10	8	0	0	0	1
Urdazubi/Urdax	276	260	270	94	94	108	7
Urroz	419	341	350	166	146	98	6
Zubieta	55	53	0	18	15	0	0
Zugarramurdi	17	11	8	0	0	1	1
GUZTIRA	3.557	3.351	3.108	1.134	1.165	1.010	62



A, B eta C
 motako
GASOLIOA
 ETXERA
24
 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693



Mailposta Buzoneos

diseinatu
inprimitu
banatu

Bisita txartelak, egutegiak, kartelak, fakturak,...
 inprimitzen ditugu.

Kartelak, egutegiak, foiletoak, aldizkariak,...
 banatzen ditugu.

Tel. 686 747 713 * NARBARTE
www.mailpostabuzoneos.com

MALE-REKA

ARROPA ETA OSAGARRI PERTSONALIZATUAK

atope!!

KIROL-ARROPA




MENDIKO ARROPA



LANEKO ARROPA



KAMISETAK TXAPELAK
PAÑULUAK BORDATUAK



Gure diseinuak eta pertsonalizatuak!

Bertako produktua, etxekoa, hurbilekoa!!!

Nagusia, 1 - DONEZTEBE · 948 451 571 · 636 885 190
male-reka@male-reka.com · [Male-Reka](https://www.facebook.com/Male-Reka)



DONEZTEBE



ONGI PASA FERIAKI

Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

Mendaur Motor

Leitzako bidea · DONEZTEBE | Tfnoa: 948 450 333

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura

ongi pasa feriak!





ARKUPEAK

GIZARTEA → SOLASALDI JENDETSUAK

Argindarra gutxiago ordaintzeko hitzaldiek interes handia piztu dute

Doneztebe, Elizondo, Bera eta Leitzan egin dituzte urrian

Fernando ETXEBERRIA

“Nola ordaindu gutxiago argi indarra” gaiak arrakastahandia izan du Doneztebe eta Elizondon. Gaur egun gaiarekiko dagoen interesa dela eta, herritarren erantzuna hagitz ona izan zen; Donezteben

52 eta Elizondon 63 pertsonak hartu zuten parte. Hitzaldia baino lehen jubilatutako guztiei ohar bat bidali zitzaion argi indarraren fakturarekin joan zitezen, fakturako atal ezberdinak irakurtzen eta interpretatzen ikasteko helburuarekin. Miren, Jon eta Mariak azalpen argiak eman zituzten eta hitzaldiaren bukaerako iritzi orokorra arront ona izan zen; bertaratzeak merezi izan zuen eta argitutako kezak guztion



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Doneztebe eta Elizondoko solasaldietan erretiratu aunitzek parte hartu zuten.

interesekoak izan ziren. Bera eta Leitzako datu-

ak hurrengo aldizkarian emanen ditugu, urria-

ren 20 eta 27an egitekoak baitziren.

GIZARTEA → URRIAREN 15EAN

Tarazonako txangotik txundituta itzuli dira

2015. urtea bukatzen ari da eta bidaia gutxi geratzen zaizkigu urte amaierarako; Gernikako feria, Lodosa eta Tenerife.

Irailaren 28an 69 bazkide Benidormera joan ziren egun batzuez eguraldi onaz gozatu eta deskantsatzera. Txanda honetan 72 eserlekuak autobusean bidaiatuko zuten zutenez aurretik kezatu samar ibili ziren, baina nahiz eta dimentsio handiagoak izan ez zen arazorik egon. Bueltarakoan, Malerreka, Leitza eta Lekunberrikoek Elizondorainoko bidea egin behar izan zuten, baina hurrengo batean hau saihesteko beste autobus bat erabiliko da.

Urriaren 15ean 22 bazkide joan ziren Tarazona eta Tuterara. Tarazonako bisita zezen plaza zaharretik hasi zen hiria ongi ezagutzen duen Enrique Ardanazekin. Gidari ezberdinekin katedral gotikoaren historia ezagutu zuten, bertako kaleak, udaltxea, ... Judutar auzoan harresia aprobetxatuz eraikitako etxe zintzilikari ikusgarriak ere ezagutu zituzten. Bisitak merezi izan zuenaren iritzia orokorra izan zen.

Ondoren Castejoneko bazkaldu zuten eta arratsaldean Tuterako kaleetan barrena ibili ziren, baina katedrala itxita zegoenez ezin izan zuten bisitatu.



ARGAZKIAK ETA TESTUA: FERNANDO ETXEBERRIA

Tarazonako zezen plaza zaharra eta etxe zintzilikariak ikusi zituzten Arkupeak elkartekideek.

KOMUNIKABIDEAK → EUSKO JAURLARITZAREN AZTERKETA

Audientzia datu onak dituzte Ttipi-Ttapak eta Xorroxin Irratiak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Euskal Herrian gehien irakurtzen den bigarren aldizkaria da Ttipi-Ttapa.

12.000 lagunek irakurria zuten aldizkariaren azken alea eta 6.680 entzule ditu Xorroxinek

TTIPI-TTAPA

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideen azterketa egin du 2015eko urtarril eta uztail bitartean. Euskarazko egunkariak, aldizkariak (tokikoak, izaera orokorrekoak eta espezializatuak), irratia eta telebista aztertu dira. Azterketaren arabera, Ttipi-Ttapa aldizkaria Euskal Herri osoko bigarren aldizkari irakurriena da, Arrasate eta inguruan banatzen den Goienaren ondotik. Xorroxin Irratiak 6.680 entzule ditu eta 4.500 lagunek baino gehiagok egunero aditzen dute.

Eusko Jaurlaritzaren azterketaren helburu nagusia euskarazko hedabideak zenbatek kontsumitzen dituen jakitea izan da, eta horrekin batera, kontsumitzaile horien ezaugarri nagusiak ezagutzea. Guztira 8.109 inkesta egin dira, horietatik 1.000 Nafarroako eremu euskaldun eta mistoan eta Saran eta Senperen. Audientziak neurtzeko, elkarrizketatuak atzo zer ikusi, entzun edo irakurri zuten jasotzen dute.

MAILEGU BAT BEHAR DUZU, AURPEGIAN ANTZEMATEN ZAIZU



Rural Kutxan baditugu maileguak zu bezalako jendearentzat

Erreforma bat etxean edo etxe berri bat. Ikasketa urte bat Parisen edo bidaia bat New Yorkera. Abian jarriko duzun negozio bat, bonbilla piztu baitzaizu asko pentsatu ondoren. Zure beharra edozein delarik ere, Rural Kutxan baditugu mailegu bat zuretzat.



RURAL KUTXA

BERA

GIZARTEA → HAMARGARREN URTEMUGA

Kottoaren heriotza gogoratuz mozioa onartu du Udalak

Astebururako hainbat ekintza prest daude

TTIPI-TTAPA

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, Kotto Altzugurenen heriotzaren 10. urteurrena gogoratzeko zenbait ekintaldi antolatu dituzte asteburu honetan. Udalak, egitarau zabalari atxikimendua adierazte-

az gain, mozioa ere onartu du, EH Bildu eta Herrirako taldeetako zinegotzien aldeko bozarekin eta UPNkoaren abstentzioarekin.

Mozioak gogoratzen duenez, «20 urterekin zinegotzi aukeratu zuten Kotto eta bi legegintzaldiz aritu zen Berako Udaletxean lanean. Kultura, kirola, euskara, mendia eta ingurugiroari lotutako gaiak zituen

gustokoen eta udaletxetik bultzada ederra eman zien hauei».

Hamar urte bete dira «arrazoi politikoak direla eta bigarren aldiz espetxeratu izan ondok, bere ziegan bakarrik, isolatuta eta behar zuen mediku arretarik gabe zegoela, bere kondanaren 3/4ak beterik izaki, hilik harrapatu zutela». Udalaren agiriak dioenez, egoera po-

litikoa aski aldatu da azken urteetan, baina estatuaren indarkeriak bere horretan dirau. Udalak bere konpromisoa berretsi du bake eta normalizazio bidean beharrezko diren pausotarako zenbait neurri proposatu ditu, hala nola «euskal preso politikoek bizi duten salbuespen egoera behin-betiko bukatzea eta saka-

banaketa politikaren behin-betirako amaiera beharrezkoa da». Prozesua oztokatzea berriz helbururik ez duten erasoak amaitu daitezela ere eskatu du etorkizuneko elkarbizitzaren mesedetan, udalarentzat beharrezkoa da «gatazkaren beroan gertatu diren eskubide urraketa guztien balantzea egitea, salbuespenik gabe».



UTZITAKO ARGAZKIA

Udaleko hameka zinegotzietatik hamarrek bozkatu dute mozioaren alde.

PUNTAS

Barrio Behobia S/N
 20.305 Iruñ
 943.63.82.24

24 H

KULTURA → AZAROAREN 6AN HASIKO DA

XVII. Kafe Antzerki Zikloak hiru emanaldi ekarriko ditu

Ikuilu ostatuan
izanen da
lehen saioa

TTIPI-TTAPA

Berako Euskara Batzordeak, Kultur Batzordearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzaz antolatutako Kafe-Antzerki Zikloaren hamazazpigarren edizioa azaroaren 6an, ortziralek arratsaldeko 10etan abiatuko da Ikuilu ostatuan, Atea taldearen *Ekoetikopetetikobikoa* ikuskizunarekin.

Azaroaren 13an, ortziralek arratsaldeko 10etan Bidaxka ostatuan *Adarretatik zintzilik* antzezla-na aurkeztuko du Gil-

kitxaro taldeak eta azaroaren 22an, igande arratsaldeko 7etan, Ez Dok Hiru taldeak *Desentxufatuak* taularatuko du Xuga Ostatuan. Emanaldi guztiak doan izanen dira.

DANTZA ETA MUSIKA

Aitzinera begira, azaroaren 15ean, igande arratsaldeko 5:30ean Kultur Etxean, Fuede-je dantza taldearen Nor da otsoaren beldur haurrentzako dantza ikuskizuna ikusgai izanen da. Sarrerak 3 eurotan salduko dira. Azaroaren 21ean, larunbat arratsaldeko 8etan, Tenpora taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Alex Tellok idatzi eta zuzendutako lana da *Ekoetikopetetikobikoa*, eta antzezleak Anabel Arraiza eta Jabi Rodil dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko emakume feminista taldea lanean hasia da

Irailaren 26an, herriko hainbat emakume bildu ziren Emakume Feministen talde bat sortzeko. Bilerak dinamikak izan ziren, hainbat eztabaida eta lanketa egin zituzten sortuko zen taldearen funtzionamendua, antolamendua eta oinarriak definitzeko, guztia Bilguneako Oihana Etxebarrietaren laguntzarekin. Hori eta gero, lehen ekintza bezala, Erandio eta Gixunen izandako erailketa matxistak salatzen mobilizazioa egin dute Beran. Mukixu zubian elkartu ziren 40 pertsona inguru, kartel eta kandelen artean. Nahiz eta lehen ekintza gertakizun ilun baten ondorioz egin, antzinera begira, tailerrak, eztabaida guñeak... egitea espero dute taldekideek. Hurrengo bilerak azaroaren 7an izanen da, arratsaldeko 5etan Beralandetan. Inguruko herrietako emakumeak ere gonbidatuta daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

Organo emanaldia eskaini du Jose Luis Echechipiak

XXXI. Nafarroako Organo musikaren zikloaren baitan San Esteban elizan kontzertua eskaini zuten urriaren 17an. Zehazki, *Réquiem de Duruflé* jo zuen Jose Luis Echechipia Paris organojoleak, baina ez zen bakarlaririk aritu. Amaia Larrayoz sopranoa, Irati Goñi biolontxelo jolea eta Barañaingo Abesbatza lagun izan zituen, Pello Ruiz Huiciren zuzendaritzapean. Denen artean, begirada bat eman zioten gregoriar kantuari, XX. mendeko musikatik abiatuta.

ERREKALDE

PLATER KONBINATUAK

OSTATUA

PINTXOAK

BOKATIAK

TFNBA: 948 630 259 BERA

• Saragueta aholkularitza
• abokatu bulegoa

Felipe Saragueta. Abokatua

• Zuzenbide administratiboa
• Hirigintza
• Sozietateak
• Nazioarteko zuzenbidea

fsaragueta@abokatua.com

Iparalde karrika 5, beheha · 31780 BERA · 948 625 162

Borja Mujika. Abokatua

• Komunitateak
• Herentziak
• Familia zuzenbidea
• Erreklamazio zibilak

bmugica@abokatua.com

xirgil
jaione goya

ileapaindegi mistoa

Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

LESAKA

KULTURA → NAFARROAKO PARLAMENTARIEN BIXITA

Liburutegia Harriandoan kokatzea eskatu dute berriz ere

Lekualdatzea egiteko 75.000 euro aski dira

Aitor AROTZENA

Aitzineko legealdian egin zen bezala, Nafarroako Parlamentu berriko Kultura, Kirola eta Gazteria Batzordea herrian izan zen irailaren 30ean, Harriandoa Kultur Etxea eta egungo liburutegia ikusten. Udaren asmoa liburutegiko 20.000 bat bolumenak Harriandoan hutsik dagoen gela handira eramatea da eta horre-

tarako 75.000 euro inguruko inbertsioa aski izanen litzatekeela jakinarazi zien alkateak parlamentariei. Gainera, gogorarazi zien Kultur Etxean eta liburutegi berrian ez duela euro bakar bat ere jarri Nafarroako Gobernuak, «diru guztia Madrilén lortu baitugu, Estatuko Aurrekontu Orokorretatik, PNVk eta PSOEk bere garaian adostaturako emendakin baten bidez».

UPN, Geroa Bai, EHBildu, Podemos eta PSNko ordezkariak, bisitaz gain, lan-saio bat



UTZITAKO ARGAZKIA

Parlamentarien iritziz xarma handia du liburutegiak, baina segurtasun gutti.

egin zuten eta ondorio berdintsuak atera zituzten: «Gaur egungo liburutegiak xarma handia du, baina irisgarritasun eta segurtasun aldetik gabezia handiak». Beraz, ados daude ekipamenduaren lekualdatzea erraztu behar dela aipatzerakoan. Nafarroako Gobernuarekin solasean ari da udala, baina oraindik ez dago zehazterik traslado hori noiz egingen den.

Ba al zenekien

Aspaldian Parisen bizi arren, sortzez Katatzpe-giko Joantxebordakoa den Francisco Javier Irazoki idazleak Orquesta de desaparecidos bere azken liburua aurkeztu zuela urriaren 24an Udaletxeko pleno aretoan

Lan saioan izan zen Asun Maestrok, Nafarroako Liburutegi Zerbitzuko zuzendariak, aipatu zuenez gaur egun 814 erabiltzaile ditu Lesakako liburutegiak eta joan den urtean 13.000

bisita jaso zituen. Datu bikainak dira, 2.700 bizilagun inguruko herri batentzat, baina Harriandoan kokatuz gero, jendea oraindik gehiago hurbilduko litzatekeela uste du.

NAFARROAKO MENDI TXAPELKETA ETA NAFARROAKO JUNIOR TXAPELKETA JOKOAN

Agiñako VI. Auto Igoera egingen dute larunbat honetan

A. AROTZENA

2007az geroztik ez zen rallyrik ikusi herrian, baina urriaren 31n egingen da Agiñako igoeraren seigarren edizioa, Nafarroako Mendi Txapelketa eta Nafarroako junior txapelketa jokoan izanen dituen. Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatutako lasterketa, Navarra Sport eskuderiaren laguntzaz, eta 4,6 kilometroko ibilbidea izanen du. Urriko azken larunbat goize-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Zortzi urteren ondotik, berriz ere Agiñako Auto Igoera egingen da.

ko 8:30etik 11etara egingen dituzte egiaztapen administratibokak Kasinoan eta egiaztapen teknikoak, berriz, eguerdiko 12etan hasita egingen dituzte frontoiko parkinean. Ibilgailuen aurkezpena ere bertan egingen dute. 14:00etan entrenamenduak hasiko dira eta ondoren lasterketako bi mangak. Emaitzak 20:00etatik aitzinera jakinaraziko dituzte Kasinoan eta sari banaketa plazan egingen dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Onddo garaia

Udazken honetan onddo kolpe politak izaten ari dira eta horren adierazgarri, Jose Fernandezek harro erakusten duen *uzta*, 750 gramoko onddo ederra eskuetan duela.

Lentzeria
- Bainujantziak
- Merzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria merzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erretoria · Asador

Biturana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

Presidat
y
Verduras
BRANDONEA, s.l.
FRUTAS DE BARCELONA

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

KULTURA → URRIAREN 30EAN

Udazkeneko kultur egunetan txistu kontzertu didaktikoa izanen da

Aurten ere Irungo udal txistulari banda etorriko da ortziralean 14:20ean

Irune ELIZAGOIEN

Azken urteetan bezala, Etxalarko Euskarra batzordeak antolatzen dituen Udazkeneko Kultur Egunetan, txistu kontzertu didaktikoa batez goatzeko aukera izanen da. Aurten ere Irungo udal txistulari bandak eskainiko du kontzertua. Hau Kultur Etxean izanen da urriaren 30ean, ortziralean 14:20ean.

Landagain eskolako ikasleak usategietan

Urriaren 9an Landagain eskolako 75 ikasle joan ziren Usategietara, bi urtetik behin egiten duten bisita gidatua egitera. 3-5 urtekoak kotxeetan joan ziren eta lehenengo mailatik goitikoak herritik oinez. Lehenengo bideo bat ikusi zuten eta ondotik Laura Elizagoienekin sareetan azalpenak entzun zituzten eta aurten lehenengo aldiz sareetan

usoak harrapatzen ikusteko aukera izan zuten, eguraldi ona izan baitzen. Eguerdian paleta botatze txapelketa egin zuten eta urrunen bota zuten 12 ikasleek usazale diploma lortu zuten. Azkenik usategietako kamiseten zozketa egin eta mendian bertan bazkalduta herrira itzuli ziren.

Sukaldaritza ikastaroa

Larraburua elkarteak sukaldaritza ikastaroa antolatu du Iñaki Pikabearen eskutik ortziral arratsaldeetarako; 18:00etatik 20:00etara. Azaroaren 6ean hasi eta 6 bat aste iraungo du kurtsoak.

Denentzako irekia izanen da ikastaroa eta

apuntatzeko Mari Luzeri deitu behar zaio: 948 635166 edo 664 387343 telefonoetara.



ARGAZKIAK: ITSASO ELIZAGOIEN ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Usategietako igandea eta bezpera jendetsuak izan ziren

Jende aunitz hurbildu zen herrira Usategietako igandean eta baita bezperan ere. *Birziklatu beharra* antzerkiak eta Mikel Markez eta Erramun Martikorena-ren kantaldiak jende aunitz ekarri zuen plaza ingurura. Igandean ere, eguraldia lagun, bai goizean Usategi eta Lizarietan eta arratsaldean plaza inguruan ere jende andana ibili zen.



Ba al zenekien

Urriaren 11n Andoaingo abesbatza etorri zela Elizara mezan eta meza ondotik kantatzera.

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 - 948 630 967
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

ETXEZ ETXeko BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
E.N.E.E.K.
Inskripzio Zenbakia 1435

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

IGANTZI

GIZARTEA

GIZARTEA → ELKARTASUNA

Paris 365 Fundazioarentzat janari bilketa egingen dute

Azaroaren 12an, goiz eta arratsaldez Parrokiako zentroan

TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, Iruñean behartsuen alde lan handia egiten ari den Paris 365 fundazioari Fundazioari laguntzeko asmoz janari-bilketa bat antolatu dute azaroaren 12rako. Lagundu nahi duenak, egun horretan, 10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 18:00etara Parrokiako Zentroa eraman ditzake jana-riak.

ETXERA ERE BAI

Nahiago izanez gero, etxera ere joanen dira laguntza horren eske eta horretarako, 948 634030 telefonora deituz abisatu behar da azaroaren 12a baino lehen.

Gisa honetako elikagaiak eman daitezke: esnea, olio, azukrea, kakao hautsa, eta lata-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urteko janari bilketan parte hartu zuten boluntarioak.

ko kontserbak. Janari hauek hagitx ongi heldu omen zaizkie hama-bostetik behin familia behartsuen artean banatzen dituzten saskiak osatzeko.

Gogoratu, iaz egingako kanpainan, 3.780 kilo janari bildu zirela Igantzin eta Arantzan. Banketxeetan ireki ziren kontu korranteetan, berriz, 3.223 euro bildu ziren. Paris 365 Fundazioako boluntarioek eskertzen dute herritarren laguntza.

UDAL HAUTESKUNDEAK

Abenduaren 20an izanen da Herriko Etxea osatzeko bigarren deialdia

TTIPI-TTAPA

Maiatzeko udal hauteskundeetan ez zen inolako hautagaitzarik aurkeztu Udala kudeatzeko eta hortaz, urte erdi honetan, aitzineko legealdiko udal batzarrak jardunean segitzen du Herriko Etxeko martxarekin. Udala osatzeko bigarren deialdia abenduaren 20an izanen da, Espainiako Parlamenturako Hauteskunde Orokorrekin batera. Nafarroan 24 udalerri eta 102 kontzeju gelditu ziren ordezkartzarik gabe. Bizilagun kopuruari dagokionez, Igantzi bigarren handiena da, 625 bizilagunekin (handiena Deikaztelu da, 639 bizilagunekin).

DIRULAGUNTZA

Egoera bereziko familientzat deialdi berria

TTIPI-TTAPA

Egoera berezietan dauden familiei lane-ko eta familiako egin-kizunen bateragarritasuna errazteko laguntza ekonomikoen deialdia argitaratu du Nafarroako Gobernuak. Eskerak azaroaren 1a baino lehen egin behar dira.

Deialdi honetan babesturiko egoera bereziak honako hauek dira: bakar-bakarrik seme-alaba adingabeen edo harrerapean dauden adingabeen ardura duten helduak, hala nola alargunak, amatasuna edo aitasuna aitzina bakan-kan eramatea erabaki dutenak...; senar-emazteak edo bikote egonkorak, kide bat 2015ean Nafarroatik kanpo bizitzera behartuta bada (edo egon bada) edo elkarrekin bizi ezin badira genero indarkeriagatik edo 2015ean kide bat espetxean egoteagatik, etengabe, gutxienez 6 hilabetez. Diru-sar-reen arabera, 500 edo 800 euroko laguntzak izan daitezke.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

SMAZIZIOR edariak
T/F: 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com
EDARIEN eta JANARIEN SALMENTA eta BANAKETA

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA - GASA KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Arturo
Altzate, 30 31780 BERA T. 948 630 136

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
TEL: 948 625 474 BERA NAFARROA

ALZURI
ETXERAKO EDERTASUNA
ASTONDOA
DROGERIA - MENAJE
DENDA ESPEZIALIZATUA
948 625 442
San Esteban 17 - BERA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 30ETIK AZAROAREN 1ERA

Udazkeneko Kulturaldiarekin gozatuko dugu asteburuan

Gazta eta ahari
lehiaketak
eginen dituzte
igandeko
Baserritarren
Egunean

Nerea ALTZURI

Dena prest da aste hondarrerako. Urtero bezala, herriko elkarte eta taldeetako eta udaleko ordezkariak osaturiko Euskara Batzordeak eta Bortziritako Euskara Mankomunitateak egitarau zabala prestatu dute urtaro honetarako. Kultur egunen egitaraua, ortziraletik igandera, eta azaroaren 14arekin batera izanen da.

Urriaren 30ean, ortziraletan 16:30ean Ipuin-kontaketa baskulan (3-6 urteko haurrentzako). 17:15ean Ipuin-kontaketa baskulan (7-10 urteko haurrentzako). 18:00etan berendua (txokolatea bizkotxoekin banatuko dugu herriko plazan). 18:30ean Partxisa (gazteak eta ez hain gazteak elkarrekin jolastuko dira Ekaitza Elkartean).

Urriaren 31n, larunbat arratsaldeko 6etan Monologoa izanen da. Unai Ormaetxea gazte andoaindarrak baka-rrizketa umoretsua eskainiko du eskolan.

Azaroaren 1ean, igandean, azkenik, Baserritarren eguna eginen da herriko plazan eta frontoian. Bertako baserritarrek euren produktua, eskulanak edota aziendak ikusgai edota salgai paratuko dituzte. Ostatua ere paratuko du Guraso Elkar-teak.

GAZTAK ETA AHARIAK LEHIAN

Gazta lehiaketa ere izanen da eta gazta bakoitzarengatik 15 euro emanen zaizkie lehiakideei. Sarietarako, lehen saria 60 euro, bigarrena 40 eta hirugarrena 20 izanen dira.

Aziendetan ere, aharri lehiaketa eginen da bertze urte batez. Sariak hauek dira: lehen saria 50 euro eta bigarren saria 25 euro.

Azienden erakusketari dagokionez beriz, ardiak eta ahuntzak, guttienez 7 buruko lotteak aurkeztuko dira eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Bi ateraldi egin dituzte *Arbolak izautuz*

Bertako euskalkiaren eta naturaren aberastasuna eta aniztasuna uztartuz, *Arbolak Izautuz* ekitaldi polita egin zen. Haur eta gaztetxoek ateraldiak egin dituzte. Zuzaineko Maixe Fagoagak azalpenak eman ditu. Egun horietan ikasitakoa, azaroaren lehenean, frontoian, mural baten bitartez erakutsiko dute.

ekartzearen alde 40 euro emanen zaizkie artzainei. Gehienez ere, lote bat ordainduko zaio jabeari. Abrekiak, gehienez hiru buruko lotteak izan behar dira eta baserritar bakoitzari buruko 10 euro ordainduko zaizkio. Behikiak, guttienez bi buruko loteak izanen dira eta baserritar bakoitzari buruko 15 euro ordainduko zaizkio.

Hau guztia prestatzeko, Ekaitza elkartetik, zenbait mezu helarazi dituzte: Bezperan, ostatua eta frontoia montatzeko 18:30ean hitzordua paratua da. Azaroaren 1ean beriz, 08:00etan irekiko da frontoia. Arratsalde, 5etan frontoia eta plaza garbitzea izanen da.

Bertzalde, Pelle Tiki haur eskolak, bigarren eskuko jostailuen

mahaia paratuko du aurretik ere. Etxean, ibiltzen ez diren jostailuak biltzen ari dira egunotan. Ortziraletan larunbatean ere eraman daitezke, 17:30etik 18:30era udaletxeko gorapera.

Udazkeneko Kulturaldiak azaroaren 14an, larunbatekin izanen du akabaila. 19:45ean Hauspolariet musika taldeak emanaldia eskainiko du eskolan.

IAZ 3.780 KILO BILDU ZIREN

Paris 365 Fundaziorako janari biltzea eginen dute

TTIPI-TTAPA

Iaz bezala, Iruñean behartsuen alde lan handia egiten ari den Paris 365 Fundazioari laguntzeko asmoz janari-biltzea bat antolatu da azaroaren 12rako. Lagundu nahi duenak, egun horretan, goizeko 10etatik 12etara eta arratsaldeko 4etatik 6etara Osiña auzoan dagoen kope-

ratibara eraman ditzake janariak. Nahiago izanez gero, etxera ere joanen dira laguntza horren eske eta horretarako, 948634030 telefonora deituz abisatu behar da azaroaren 12a baino lehen.

Gogoratu, iaz egindako kanpaina, 3.780 kilo janari eta 3.223 euro bildu zirela.



ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irunge errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertzaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak



Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK



DESIN BERA

DESINFEKZIOAK • DESINSEKTAZIOAK • DESARRATOITZEAK
Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutxoak garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

SUNBILLA

GIZARTEA → URRIAREN 16AN

Bide hezkuntzan trebatu dira herriko ikasleak

Lehenik teoria ikasi zuten eskolan eta gero praktikak egin zituzten bizikletarekin frontoian

Maidier PETRIRENA

Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek Bide hezkuntzari buruzko teoria eta praktika ikasteko aukera izan zuten urriaren 16an. Lehenik eskolan teoria esplikatzen zieten eta ondoren denak beraien bizikleta hartuz frontoira joan ziren bertan zegoen zirkuitoaz goatzera eta praktikatzen.

Eskolaz kanpoko jardueri dagokienez, ikasurtea irailean hasi bazuten ere, eskolaz kanpoko jarduerak urrian hasi dituzte. Trikitixa (Oihana), panderoa (Ainara), katekesia (Juan eta katekistak), euskal dantzak (Amadeo eta M^a Kruz), Zunba (Ainara), Kenpo-Kai (Itziar), eskulanak (Puy) eta helduendako soinketa (Daniel) dira herrian ikasurte honetan eskaintzen direnak.

Herreratarrak mendi bizikletan


Diario de Navarrak antolatutako mendi bizikleta Openeko karrekin segituz, urriaren 11n Logroñon barna ibi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen Hezkuntzako ikasleek frontoian egin zituzten praktikak.

li ziren Herrera anaiak. Bertan Enekok bosgarren postua eta Koldok bigarrena lortu zuten. Hurrengo igandean berriaz, urriaren 18an, Ororbian Koldok bigarren postua lortu zuen. Enekok, lehenik erlojupekoa izan zuen eta 5. postua lortu zuenez, kanporaketetara pasatzeko aukera izan zuen eta bertan bigarren postua lortu zuen. Sailkapen orokorrean hirugarrena izan zen. Urriaren 25ean Peraltan izan dute beraien bosgarren karre-rra Herreratarrek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Maritxalar Valentziako Maratoi Erdian


Urriaren 18an Valentziako Maratoi Erdian parte hartu zuen Erreka Tri taldeko Jon Maritxalar herritar-rrak (erdian, Urko Loiarte eta Iñigo Arregirekin)



ARGAZKIAK: TERE ARRETXEAK ETA JUAN ANTONIO IBARRA

Diamantezko Ezteiak eta 85. urteurrena ospatu dituzte Arkupeak elkartarekin

Alberto Arretxea Bertiz eta Rosario Iraizoz Bertiz herritarren Diamantezko Ezteiak ospatu dituzte Arkupeak elkartearen besta egunean. 1955eko ilbeltzaren 26an ezkondu ziren San Tiburtzio elizan eta Aldameneko Borda baserrian bizi izan dira beti. Hiru alaba eta seme bat izan dituzte eta hauek 10 biloba eta hiru birbiloba eman dizkiete. Gaur egun Atarrabian bizi den Josefa Espelosin Agesta herritar-rrak 85 urte betetzeagatik jaso du omenaldia. 1930eko uztailaren 10ean jaio zen herrian, baina gazterik joan behar izan zuen lanera Iruñera.



BEROPEL
egurrezko pelleta

ZER DA PELLETA?

Egurraren zerrauts naturaletik abiatuta egiten den erregai berriztagarria da, inolako gehigarririk gabe, zerrautsak berak duen lignina erabiltzen baita aglomeratzaile modura, goi-presioarekin trinkotuz transformatu ahal izateko. Modu horretan dentsitate eta gogortasun handiko konposizioa lortzen da, bero-ahalmen handiko erregaia.

ABANTAILAK:

- * EKONOMIKOA, gasolioaren erdi prezioan ateratzen da
- * EZ DA BEHARREZKOA ARBOLAK BOTATZEA. Normalean zurgindegi eta zerrategietako hondakinetatik biltzen den zerrautsekin egiten da.
- * EZ DU KUTSATZEN, CO₂ neutroko biomasa baita, eta hartara, eguratsera negutegi efektuko gasen isurketarik egitea saihesten da.
- * % 100 NATURALA DA, ez da arriskutsua eta ez du gasolio bidezko berogailuen usain txarrik sortzen.
- * EZ DA ZAHARKITZEN, leku idorrean gordez gero nahi adina denbora iraun dezake bere gaitasuna galdu gabe.

BEROTZEKO AHALMENA

2 Kg PELLET = LITRO 1 GASOLIO = 1 M³ GASA

ECHEVESTE HNOS. S.L.

Pol. Industrial Frain, z/g
31770 LESAHA (Nafarroa)
Tel.: + 34 948 637 232
Faxa: + 34 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com



DONEZTEBE

KULTURA → URRIAREN 31N

Joaquin Larregla musikaria omenduko du Mendi Abesbatzak

Raquel Del Val pianista handiarekin kontzertua eskainiko du larunbatean eta musikariaren biografia aurkeztuko dute bezperan

Marga ERDOZAIN

Mendi Abesbatzak Joaquin Larregla musikaria omenduko du urriaren 31n. Omenaldi ederra burutzeko Leon-go Kontserbatorioko Katedraduna den Raquel del Val piano jolea Doneztebera hurbilduko da espresuki larunbatean herriko abesbatzarekin kontzertua eskaintzeko. Izen handiko jotzaile hau Joaquin Larreglaren lanetan espezialista da eta bakar-kako hainbat obra eskaintzeaz gain, Mendiko kideekin batera ariko da (Caixabank-ek emandako diru-laguntzari esker ospe handiko musikaria ekartzerik izan da). Hitzordua arratsaldeko 8:30ean izanen da Elizan. Urriaren 30ean (ortziralean) Jose Luis Macaya idazleak Larreglaren biografiaren liburua aurkeztu-

ko du Erakusketa Aretoan arratsaldeko 7etan.

Joaquin Larregla konpositore eta batez ere, pianista bikaina mundu osoan zehar ibili zen kontzertuak eskaintzen. Irunberrin sortu bazen ere, laster Garesera joan zen eta Donezteberekiko lotura berezia jorratu zuen (beti bihotzean izan zuen herri hau). Bertan oportetako etxebizitza zeukan eta ahalik eta denbora gehien pasatzen zuen gurean. Lekarozeko eskolan irakasle jardun zuen, bertan Aita Donostiaren lagun mina egin zen eta biek ordu luzeak ematen omen zituzten Narbarteke organoa joz musika egingen. Aita Donostiaren obra gehienak Larregla berak estreinatu zituen, eta horien artean ezagunenetakoa, *Oñazez* hunkingarria (Larreglari eskainitakoa esker ona adieraziz). Aipatu behar da Larreglaren alabak Donezteben denboraldi luzeak ematen zituela, bertze musikari handi batekin ezkondu baitzen, Federico Moreno-Torrobarekin, alegia.

Kontzertu honekin Mendi abesbatzak Larreglaren urteurreneko zikloa itxi nahi du, joan den irailaren 12an Irunberrin eskainitako arjarrapena emanez. Jaial-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Mendi Abesbatzak eta Raquel del Val piano joleak emanaldia eskainiko dute larunbat arratsean elizan, Joaquin Larregla musikariaren omenez.

di hura Olatz Kultur taldeak antolatu zuen.

UDAZKENEAN KONTZERTUZ BETETAKO AGENDA PRESTATU DU MENDI ABESBATZAK

Hitzordu garrantzitsu honen ondoren Doneztebeko Mendi abesbatzak agenda ederra prestatu du urte bukararako. Azaroaren 14an Faltzesera joanen dira; 21ean Etxalarren Nafarroako zikloaren barrenean ariko dira, Santa Zezilia eguna ospatuz;

28an, Faltzesko abesbatzak gurean kantatuko du; abenduaren 3an Nafarroaren Eguna eta Nazioarteko Euskarren Egunekeo ekitaldien barrenean Legasan ariko da eta, urtea bukatzeko, abenduaren 18an Donostiako Udaleko Txistulari taldearekin batera, Eguberrietako Kontzertua eskainiko dute bertako Agorreta musika eskolako ikasle eta dantzarien laguntzaz.



Ba al zenekien

Erreka Kirol Elkartek aurtengo Mendiaren Egunerako Carlos Soria mendizale "beteranoa" gonbidatu duela. Hitzordua abenduaren 19an izanen da. Eguna urruti dago baina hitzordu berezi hori atontzen ari dira dagoeneko eta protagonista nor den ikusita arrakasta ziurtatua dago!

FLASH

Haurren bertso eskola lanean

Iaz bezala, aurten ere, San Migel ikastetxean bertso eskola sortu da. Aipatu behar da ortzegunero 13:50etik 14:50era bertako ikasgeletan bertso doinuak entzungai izanen direla ikasturte osoan.

Bi udal langile kontratatzea

Fondo de garantía juvenil delako programaren laguntzaz Doneztebeko Udalak bi langile kontratatzeko asmoa du. Deialdia 30 urte baino gutxiago duten gazteendako zuzendua da. Interesatu-ek informazioa udal-letxean jasotzen ahal dute, bertan programa honetan aholkularitza eta laguntza eskainiko baitzaie.

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 6TIK 11RA OSPATUKO DITUZTE

Pilota partidarekin abiatuko dira Aurtizko Sanmartin bestak

Olaizola eta Apeztegia, Otxandorena eta Elizalderen kontra ariko dira

Arkaitz MINDEGIA

Bortz egunez ospatuko dituzte Aurtitzen San Martin bestak, tartean atsedenerako asotelehena utziz.

ORTZIRALA, AZAROAK 6

- 12:30ean Pilota partida: Olaizola-Apeztegia/Otxandorena-Elizalde.
- 13:30ean Txupinazoa.
- Ondotik kalejira herriko txistulari eta trikitilariekin.
- 14:00etan Herri bazkaria Julio Soto eta Amets Arzallus bertolariekin eta Joxe Anjel akordeolariarekin.
- Atsaldez eta arratsez Joxe Anjel akordeolariarekin dantzaldia.
- 22:00etan Zopak Abarun ostatuan.

LARUNBATA, AZAROAK 7

- 10:00etan Argisoinuak herriko txistulari eta trikitilariekin.
- 11:00etatik aitzinera haurrentzat puzgarriak.
- 17:00etan Mendaur Trikitixa eskolaren



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bestak goxo akitzeko, patata tortilla lehiaketa izanen da San Martin egunean.

emanaldia. • 00:30etik 05:00etara Oharkabe Taldearekin dantzaldia.

IGANDEA, AZAROAK 8

- 10:00etan Argisoinuak herriko txistulari eta trikitilariekin.
- 12:00etan Inguruko artisauen azoka eta Zubietako muxikoak.
- 17:30ean Ibiltza dantza taldearen emanaldia.
- 19:00etatik aitzinera Txamukos mariatxiekin dantzaldia.

ASTEARTEA, AZAROAK 10

- 10:00etan Argisoinuak herriko txistulari eta trikitilariekin.
- 17:00etan Haur joku-

ak. • 22:00etan Mus txapelketa herriko ostatuan.

ASTEAZKENA, AZAROAK 11 SAN MARTIN EGUNA

- 10:00etan Argisoinuak herriko txistulari eta trikitilariekin.
- 11:00etan Meza nagusia Martin Donearen ohorez.
- 12:00etan Aizkora apustua: Palaxio-Miguel Anjel Etxeberría.
- 14:00etan Gazte Bazkaria herriko ostatuan.
- 18:00etatik antzinera postre eta patata tortilla lehiaketa herriko ostatuan.
- Beste amaiera emateko berendua afaria eta Gaixoa Ni!

URRIAREN 31N

Bi urte bete ditu Abarun aterpeak

A. MINDEGIA

Jadanik bi urte pasa dira Abarun aterpetxeak bere ateak zabaldu zituela. Amaia, Iriber eta Unaiek Aurtizko Ostaturia itxuraldatzeaz aparte, bizitasuna eman diote.

Bigarren urteurrena ospatzeko Mexikar gaua eginen dute urriaren 31n. Larunbat arratsaldeko 6etatik 7etara kareta tailerra eginen dute. Gero, Pintxo potea. 21:30ean Afari Mexikarra (apuntatzeko Abarunera deitu). Gauean Mexikortxo taldearekin dantzaldia eta gauean sorpresak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oinezen parte hartzen

Nafarroa Oinezen herritar ugari izan zen, bai egunaz goxatzen, baita bere laguntza edo babesa emanez ere: Aurtizko eta Iturengo Joaldunak, Mendaur trikipandero eskolakoak, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu bertsolariak, Trikidantz taldea... Aurtizko joaldunek Agintarien etorriaren ondoren ireki zuten Nafarroa Oinezen ibilbidea.



Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862





trento
clínica dental

Trento, 8 · DONOSTIA | T. 943 316 944
info@dentaltrento.es www.clinicatrento.com



ORBELA
SENDERSMIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 10EAN

Euskararen Egunean 15 joaldun handi omendu dituzte

Joaldunen paperak kudeatzen dituen Bidane Elizaldek ere oroigarria jaso zuen

Fermin ETXEKOLONEA

Euskararen Eguna ospatu zuten urriaren 10ean, herriko gazteek antolatuta. Bezperako pintxo lehiaketara 14 aurkeztu ziren eta epaimahai lanetan ibili ziren Lurdes, Andrew eta Maialenek, lehenengo postua Elixaldeko Joxe Mari Moha-ri ematea erabaki zuten. Bigarren saria, berriz, Seroingo Leirek eskuratu zuen. Pintxoak jan ondoren, estalpean, Andres Iñigok euskararen inguruko mintzaldia eskaini zuen. Gauean berriz, mus txapelketa egin zen Errandonean, eta bertan bikote garailea Markesko Xanti eta Xapako bordako Joxe Mari izan ziren, azpitxapeldunak berriz Palazelaitako anaiak suertatu ziren.

JOALDUN HANDIAK OMENDUAK

Baina bezperako lehiaketak eta txapelketak gorabehera, larunbatekoa izaten da Euskararen Egun handia. Goizetik eskulangileen postuak jarriak zeuden. Horiez gain, gazteek urdai azpiko, gazta eta tomatearen pisua asmatzeko lehiaketa antolatzen dute dirua biltzeko intentzioarekin. Gazta Lopeko Edurnek eraman zuen, urdaiazpikoa Kokotxeko Vicente Ortuostek eta tomatea berriz Oihana Elizalde.

Aurten herriko 15 joaldun omendu dituzte, adingehien dutenak hain zuzen ere: Markos Juanikorena, Alejandro Santesteban, Tomas Ibarra, Tomas Otxandorena, Juanito, Jesus M^a eta Jose M^a Babaze, Eustaquio eta Juan Elizalde, Migel eta Jose Migel Telletxea, Leon Mutuberria, Sebastian Otxandorena, Jose M^a Indakotxea eta Lucio Juanikorena. Udala eta joaldunen artean omen-du nahi izan zituzten, eta oroigarri gisa txapel



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Joaldunak omendu zituzten Euskararen Egunean. Pintxo lehiaketa eta krosa ere egin ziren.

bat eman zioten bakoitzari Agurrikez, eskerrik asko joalduna esaldia bordatuarekin. Horretaz gain, Markos Juanikorenari beste oroigarri bat eman zioten oraindik ere, herriko joaldunekin ateraldiak egiten dituelako. Joaldunek Bidane Elizalderi ere eskerrak eman nahi izan zizkionten taldearen paper asuntok kudeatzen dituelako. Bukatzeko Ainhoa Larreak bertso bat

abestu zuen joaldunaren garrantzia adierazten zuena. Haurrek Aurreskua dantzatu zieten omenduei.

64 LAGUN BAZKALTZEN SOTO ETA MAIAREKIN

Joaldunek taldeko argazkia atera ondoren, muxikoen txanda izan zen bazkaltzeko ordua iritsi arte. Bazkaria estalpean izaten da, eta bertasolariren laguntza izaten da giroa gehiago

berotzeko. Aurtengoan Julio Soto eta Jon Maia ziren bazkal-lagunak eta bertaratutako 64 herritarrek ederki bazkaldu ondoren, algarra artean ederki pasatzeko parada izan genuen.

Arratsaldean krosaren txanda izan zen, Txitxilu elkartearen eskutik. Txokolatea izan zuten ondotik. Txamukos mariatxiek giroa zuten plaza eta gauean berriz Fan&Go taldeak.



POSADA OITZ

Nagusia 1 OITZ
T. 948 451 951 - 948 450168
www.posadaoitz.com



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 21EAN

Arkupeak elkarteak urteko besta handia egin du Gorraizen

640 bazkide
bildu eta
omenaldiak
egin dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak urtero egiten duen bazkidearen eguna ospatu zuen urriaren 21ean Gorraizko parroikia-elizan. Mezan, urte honetan hildako kideak ekarri ziren gogora. Mezaren ondotik, 60 urtez elkarrekin bizitako hiru bikote eta 50 urtez bizikide izandako hama-bi bikote omendu zituzten. Azkenik, 85 urte bete dituzten 41

bazkide ere omendu zituzten.

Doneztebeko Juan Zabala apezak eman zuen meza, egun berezia gogotsu ospatzeko gonbitea luzatuz. Pakita Mikelarenak hildakoa oroitu eta omenduentzako bertsoak abestu zituen (ondoan).

Ramon Apezetxea organista izan zen kantuen zuzendari. Mezaren amaieran, Jose Luis Legarra lehendakaria pozez agertu zen bazkideen aitzinean. Lehendakari izateko aukera eskertu eta ekonomia, ikastaro eta hitzaldiak, bidaia eta mendia batzordeek osatzen duten



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak omendutakoak, Gorraizeko elizan.

batzar taldeari aipamen berezia egin zion euren inplikazio eta lan onarengatik. Aurretik izandako lehendakari, batzordekide eta herriz herri sekulako lana egiten duten delegatuak gogora ekarri zituen.

Omenduei opariak eman zitzaizkien eta meza akitzeko, alderian elkarrekin argazkia atera zuten. Gorraizko Gazteluko jatetxean bazkaldu zuten eta Joxe Anjelen doinuekin dantzatu zuten.

Bota bertsoa **Pakita MIKELARENA**

Arkupeaken izenin elkartu gerade lehenengo eskaria hil direnen alde, hemen gauden guztioi, ta ez gaudenei ere lagun gaitzazu jauna, otoizka baikau.

Sufritzen daudenentzat otoitz beroenak gorputzan oinaziak, bihotzean penak. Herritik urrun eta bakarrik daudenak, neketan den guztia lagundu zuk jauna.

Zeruko ama ederra, birjina Maria zure eskutan dago azken eskaria, barkatu gure hutsak, izan errukia zaindu gure fedea eta elkartia.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Edredoi nordikoetan espezialistak
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toaillak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 17AN LABAIENEN

Urriaroko besta ederra izan da aurten ere

Etxeberria anaiek irabazi dute aizkora apustua

Arantxa ITURRALDE

Azken urteotako ohiturari eutsiz, Urriaroko besta ospatu dute aurten ere Beintza-Labaien. Urriaren 17an, larunbatean, aizkora apustua, garai bateko argazkien erakusketa eta afaria izan dituzte.

Aizkora lehiari herriko 3 bikotek hartu zuten parte; Etxeberria anaia, Jesus eta Migel

Anjel suertatu ziren irabazle, Pello Telletxea eta Patxi Mindegia osaturiko bikotea bigarren, eta hirugarrenak Jon Telletxea eta Mikel Indakoetxea.

Ondoren, herritarrek elkarteak bildu ziren, garai bateko eta gaur egungo labaindaren argazki digitizatuak ikusteko elkarteko telebistatik. Afari bikaina izan zuten, zopa, piperrada, azpizuna eta postrearekin, eta afal ostean, kantu giroan akittu zen aurtengo urriaroko besta, Anjelek akordeoiarekin lagunduta.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Aizkora apustuak eta afariak herritar asko bildu zituzten urriaroko bestan.

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 7AN DONAMARIAN

Julio Soto eta Iker Zubeldiak bertso-afaria eskainiko dute

Malerrekako Kultur Ibilbidearen baitan Herriko Ostatuan

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Kultur Ibilbidearen baitan azaroaren 7an bertso afaria egingen dute Donamariako Herriko Ostatuan

an, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Donamariako Udalak eta Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta egingen da bertso afaria, larunbat arratseko 9etan hasita Donamariako Ostatuan. 25 euroen truke txartelak salgai jarriak daude Donamariako Herriko Ostatuan bertan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joan den urriaren 10ean Olako Inaxi eta Luisen urrezko ezteiak ospatu ziren. Goizean Donamariako konbentuan meza entzun ondoren, Etxalarko Bentetan beraien seme-alaba eta bilobekin oso giro onean egun zoragarri hau ospatu zuten. 50 urte ezkonduz ez direlako egunero betetzen zorian beronenak!

GIZARTEA → AZAROAREN 1ERAKO

Santu Guztien Eguna ospatzeko kanposantua txukundu dute

Sarrera garbitu eta margotu, mahai berria jarri eta horma-hilobiek zuten belarra moztu dute

Fernando ETXEBERRIA

Urtero bezala, santu guztien eguna ospatzeko beharrezko txukunketa lanak egin dira kanposantuan. Sarrera garbitu eta margotu da. Gainera mahai berri bat eta loreak jarri dira. Horma-hilobietan zegoen belarra ere moztu da. Guzti hau Julian, Jaione, Mikel eta Mariren lan eskuzabalari esker.

Kanposantua, sarrean jartzen duen moduan 1872. urtean eraiki zuten José Antonio Mariezcurrera eta Josefa Antonia Etxeberria senar-emazteen aginduz.

Aitzinako kanposantu zaharra eliz atarian kokatua zegoen XVII. mendean eraiki zenetik. Zola egurrezkoa zen eta familia bakoitzak zenbaki bat zuen. Bitxikeria moduan esan daite-

ke denborarekin egurra hondatzen joan zen heinean, bataioetan aita-bitxi eta amabitxiak dirua botatakoan, egurra altxa behar izaten zutela eroritako dirua jasotzeko. Egurrak altxatzerakoan, bertan lurperatutakoen garezurak eta hezurak ikusten ziren. Gaur egun, ordea, zementuz estalita daude eta jatorrizko zenbakiak mantentzen dituzte.

Omenaldiak

Urriaren 21ean bazkideen eguna ospatu zuten Arkupeak elkarteak Gorraizen. 642 pertsona elkartu ziren hildako adiskideen oroimenez antolatutako mezan eta ondoren 85 urte bete dituzten bazkideak omenatu zituzten. Fermin eta Margarita dira 85 urte bete dituztenetako bi. Ferminek ezin izan zuen bertaratu, baina Margarita bertan izan zen bere familiarekin.

Fermin Apeztegia 1930eko martxoaren 22an jaio zen Ezkurra-ko Garzinea etxean. Ondoren Tornainea Borda-ja joan zen bizitzera eta




ARGAZIAK: F. ETXEBERRIA

Itxura ederra hartu du kanposantuak. Ea aurrerantzean ere zaintzen dugun.

han jarraitzen du. Ezkongabea da eta hiru iloba ditu. Artzain eta abeltzaina izan da.

Margarita Juantorena 1930eko ekainaren 9an jaio zen Eratsunen. 6 anai arreba izan zituen. Ordizian aritu zen lanean eta han ezagutu zuen Juan Jauregi bere senarra. 7 seme alaba izan zituzten. Biak Ezkurrara etorri ziren. Senarra Sarrio lantegian lanean aritu zen eta Margarita etxean. 14 biloba eta 5 birbiloba ditu. Orain dela 9 urte alar- gun gelditu zen eta bere seme Marzelinorekin bizi da Ezkurrako Psekonea etxean.



ARGAZIAK: F. ETXEBERRIA

Fermin Apeztegia eta Margarita Juantorena herritarrek omenatu dituzten Arkupeak elkarteak, aurtan 85 urte bete dituztelako.



ARESO

GIZARTEA → EUSKARA TALDEAK BULTZATUTA

Errigorako saskia azaroaren 8ra arte eskatu liteke Sastinean

Euskararen eguneko ekitaldietan herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute

Juana Mari SAIZAR

Errigora kanpaina urriaren 21ean hasi zen eta azaroaren 8ra arte izango da Nafarroako produktuekin osatutako saskia eskuratzeko aukera. Etkez etxe informazio orriak banatu dira betetzeko eta gero Sastinean bilduko dira. Kanpainarekin bat egiten dutenek, bertako ekoizleek

egindako garain garaiko produktuak kontsumitu eta euskarari bultzada ematen diote. Errigorak lortzen duen diruaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko bideratzen da eta.

EUSKARAREN EGUNA PRESTATZEN

Errigora kanpaina bultzatzeaz gain, aurtengo euskara eguna ere antolatzen hasia da Euskara Taldea. Oraindik ez dago zehaztuta nola izango den baina proposamen berriak dituzte burutan. Hori bai, gogorarazi dute ideia hauek ongi ateratzeko



UTZITAKO ARGAZKIA

1955 eta 1958 artean jaiotakoek ere ospatu dute kinto pesta

Lau urte horietan jaiotako uzta ere ez zen nolanahikoa izan eta denak Pake Toki elkartearen bilduta oso ongi pasa zuten. Errepikatze gogoz geratu ziren eta hurrengo urterako antolatzaileak dagoeneko izendatu dituzte.

herritar guztien laguntza beharko dela.

Udazkeneko fruituak

Udazkenean burubelarri sartuta, ehiza garai bete-betean gaude. Ehiztariak gozatzen ari dira eta goizean goizetik, egunak argitu aurretik gehienetan, moto eta kotxeen joan-etorria nabaritzen da. Beste batzuk hurrak, intxaurrak, sagarrak, onddoak... biltzen ari dira. Udazkena oso oparoa izaten ari da, ahal baduzue gozatu!



UTZITAKO ARGAZKIA

Sasoian jartzeko aukera herrian bertan!

Helduentzako kirol ikastaroak hasi dira eta 15 pertsonako taldea osatu da mantenimendu funtzionala ikastaroan parte hartzeko. Aitorrek ematen ditu klaseak astelehen eta asteazkenetan.

ARANO

OSPAKIZUNA → AZAROAREN 7AN

Sanmartin eguneko egitaraua prest

Megalitoen inguruan antolatu dute

Ainhoa ANSA

Azaroaren 7an historia eta ospakizuna lotuko dira sanmartin eguneko ospakizunean. Megalitoen inguruan anto-

latu dute aurtengoa. Goizeko 10etan bisita gidatua izango da herriaren goiko aldean dauden jentilbarretzera. Suhar arkeologia elkarteak kideak eta Donostiako zahorri bat eta bere taldea etorriko dira, jentilbarretzen inguruan dituzten teo-riak eskaintzera.

Bazkalondoan, bos-tak aldera, Suhar arkeologia elkarteak kideak arkeologia tailerra eman dute eta bertan sua egiten, ehizerako tresnak egiten, kobazuloetako artearen teknikak... erakutsiko dituzte. Ondoren beti bezala talo eta gaztain jatea izango da.



ARGAZKIA: XABIER LEGARRETA

Zeinek handiagoa harrapatu?

Unai, Oihan, Odei eta Unaxek onddo ederrak bildu dituzte. Badirudi zeinek handiagoa harrapatu lehian ibili direla... Batzuk kiloa ere pasa! Dagoeneko jan izango dituzte eta gehiagoren bila joaten direnean atzetik segika joan beharko dugu!

TURISMOA → URRIAREN 16AN JASO ZUEN BIKAIN TASUNAREN SARIA BELGIKAN

Plazaola Turismo Patzuergoa saritua izan da Europako Bide Berdeen Sariketan

Gustavo Ortiz de Barrón da gerente berria

TTIPI-TTAPA

Bide Berdeen Europako Elkartek Bikaintasunaren bigarren saria eman dio Plazaola Partzuergo Turistikoari, urriaren 16an Namur hirian (Belgika) egin zen Europako Bide Berdeen 7. sariketan. Sari hau, bide hauen ezaugarriak ongien integratzen dituen eta, epaileen iritziaz, bere balore espezifikoengatik «eredugarriak» diren Europako hiru bide berderi ematen zaie.

Sariak, beste aldetik, Partzuergoak berak, sortu zenetik, egindako lana eta izandako pertse-



UTZITAKO ARGAZKIA

Natalia Azkona Partzuergo Presidentea jaso zuen saria Namur hirian (Belgika).

berantzia aitortu eta gailentzen ditu; hain zuzen Plazaolak Bide Berdea egokitze lanean eta honen proiektzioan eta garapen turistikoan, in-

guruko udalen onurarako. Azken kontu honekin lotuta, Partzuergoak 2007an AEVV-EGWAK emandako "Garapen eta Turismoa" lehenengo sa-

ria ere jaso zuen. Ekitaldia Valonia-Bruselas-eko Herrilan, Osasun eta Gizarte eta Ondareko ministro eta presidenteordea den Maxime Prevot-

ek zuzendu zuen. Saria Partzuergoko presidente den Natalia Azkonak jaso zuen.

GERENTE BERRIA

Plazaola Partzuergo Turistikoko gerente titularra den Maitena Ezkurtari Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaria izendatu ondotik, kudeatzailearen ordezkatzeko lanpostu deialdi publikoa egin zen irailean.

14 partehartzaile izan ziren deialdian eta, horien artean, Gustavo Ortiz de Barrón izan zen kalifikazio handiena lortu zuena. Ondorioz, bera izango da denboraldi batez gerentziaren eginkizunak beteko dituen. Gerente berria, urriaren 20an hasi da lanean.

GOIZUETA

OSPAKIZUNAK → AZAROAREN 7AN ETA 8AN

Jubilatuen asteburua antolatu du Umore Onak

Larunbatean mus eta truk txapelketak jokatu dituzte eta igandean bazkaria

TTIPI-TTAPA

Umore ona elkarteak antolaturik, Jubilatuen asteburua egin da.

Azaroaren 7an, larunbata, jubilatuentzako mus eta truk txapelketa izanen da arratsalde-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Trukeko finalak ikusmina piztuko du aurten ere.

ko 4etan. Igandean, meza izanen da 11:00etan. 12etan, pilota partidua.

Eta ondotik bazkaria, 10 euroren truke. Eguna bukatzeko, musika

dantzaldia izango dute Ainhoa Zabaletaren eskutik.

LEITZA

GIZARTEA → ARANO, ARESO, LEITZA ETA GOIZUETAN LANEAN

Gizarte Zerbitzuak 25 urte bete ditu *ateak irekiz, eskuak luzatuz*

Urriaren 16an egin zituzten urteurren ospakizunak

JM BARRIOLA

Duela 25 urte hasi zen lanean Leitzaldeko Gizarte Zerbitzua. Bi langileekin hasiera hartan, urteen poderioz hazten joan da eta orain administratzaile bat, bi gizarte langile, hiru gizarte hezitzaile, berdintasun teknikaria eta zazpi etxez etxeko langilek osatzen dute zerbitzua. Areso, Goizueta eta Leitzan eskaintzen dute zerbitzua eta udal hauentzat oso garrantzitsua da.

LAU LAN-ILDO

Lau programa nagusi dituzte eta berdintasuna modu transbersalean lantzen dute. Lehenbiziko programaren helburua herritarren eskarrik jasotzea da, harrera egin eta bideratzea. Bigarrenak pertsonen autonomia sustatzea du xede, hau da autonomia



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

Giro bikainean ospatu zuten mende laurdena bete izana.

murritzua edo menpekotasun fisikoak dituztenei laguntzea; etxez etxeko laguntza zerbitzua, ortopedia zerbitzua maileguan... Hirugarrenean, gazte eta familientzako arreta eskaintzen da. Eskusio arriskuan egon daitezkeen familiei arreta, drogomenpekotasun prebentzioa, eskola laguntza, Oialde-txoko 12-16 urteko gazteentzat... dira programa honen lan arloak. Bukatzeko integrazten laguntzeko programa ere badute, etor-

kinei eta bazterketa arriskuan daudenei zuzendutakoa gehienbat: elikagai bankua, lana bilatzeko zailtasunak dituztenei laguntza, etorkinen integrazioa, larrialdi poltsa, bekak, eta laguntza bereziak. Oinarritzko gizarteratze errenta ere bertatik bideratzen dute egoera larrian dauden familiei laguntzeko.

Horretaz gain, emakume eta gizonen arteko berdintasun programa, 2013-2017 I. Berdintasun Plana, martxan

da eta horren baitan emakumeen ahalduntzea, etxeko lanen banaketa zaintza, emakumeen aurkako indarkeria sartzen dira.

Urriaren 16an ospatu zuten 25. urteurrena. *Ateak irekiz, eskuak luzatuz* lelopean egun osoko besta izan zen. Goizean plazan jarri zuten informazio postu bat azoka zela aprobetxatuz. Ondoren bazkaria egin zuten egungo langileek eta langile ohiek. Arratsaldean egin zen ekitaldian

TORREALIBRE! ESKATUZ

Su ta gar taldearen kontzertua urriaren 30ean

JM BARRIOLA

Torrea librearen baitan ekimen ezberdinak antolatu dira azkenaldian. Torrea bera laranjaz margotu da eta herrian zehar lorontziak ere laranjaz margotu ziren. Kontzertuak ere izan dira eta ekimen ezberdinen artean Mikologiaaldiaren baitan leitzarrek perretxikuei ateratako argazkien bilduma aste osoan egon da Torrean ikusgai. Urriaren 24an arratsaldean pseta giroa nagusitu zen bertan. Hurrengo hitzordua urriaren 30ean da, Su ta Gar taldeak kontzertua eskainiko du.

zerbitzuaren ibilbidea errebasatu zuten. Etabukatzeko clown antzerki saioa izan zen, bertaratu zirenen gozamenarako. Beste hainbeste urtez lanean segitzeko asmoa dutenez, Leitzako Udaletxeko bulegoan edo 948 510840 telefonoan esperoan izanzen dituzue, laguntzeko prest.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Indarkeriaren aurkako kontzentrazioa

Urriaren 8an, iluntzeko 8etan indarkeriaren aurkako kontzentrazioa egin zuten Lopene aurrean. Aurreko astelehenean Erandion hil zuten emakumearen erailketa salatzen. Erasorik ez erantzunik gabe, lelopean bildu ziren 40 bat inguru lagun.

Herriko mugak ezagutzeko aukera Mendibil taldearekin

Mendibil Mendi Taldeak Leitzako mugetan barna mendi itzuli bat prestatu du. Hiru etapetan banatuta, herriko bazterrak ezagutzeko modua izanen da. Urriaren 31n Kortekoborda eta Plazaola arteko bidea egingen dute. Azaroaren 28an Plazaola eta Rezola arteko etapa egingen dute eta Goizueta feria eguna denez bertan bazkaltzeko aukera izanen da. Abenduaren 19an Rezola eta Kortekoborda arteko ibilbidea egin eta ondoren urte amaierako bazkaria egingen da. Guztira 38 kmko ibilbidea da eta 2.735 metroko desnibela du. Ateraldian parte hartzeko izena aurretik eman behar da Maimur edo Astizen edo emailaz. Argazkian Aniera joan zen taldetxoa ikus liteke.



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 18KO NAFARROA OINEZ

Hamabortz, ama bat... milaka lagun

Baztan
Ikastolan
lanean aritu
diren bederatz
irakasleri
omenaldia
eskaini zitzaie

TTIPI-TTAPA

Hamabortz, ama bat lelopean, jendetza bildu zen Baztanen urriaren 18an. Lortutako diru-sarrerekin eraikinetan beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko aukera izanzen dutela aurreratu dute koordinatzaileak.

Oinezen inaugurazio ekitaldian, gogoan izan zuten Martin Garde, Ikastolako aita izandakoa, 1982ko Nafarroa Oinezen logoaren sortzailea eta duela aste gutxi zendu zena. Gogoan, halaber, Benigno Mendia, Urdiaingoa, urtero Ikastolen besta handian paellada antolatzen zuena eta duela

astebete zendu zena ere. Aspaldiko partez Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere izan ziren Oinezen, Uxue Barrios lehendakaria buru zutela. Xole Jaunsaras gartzaindarrari, Martin Garderen emazteari egokitu zitzaion zinta moztea. Urtetan beren ibilbidea Baztan Ikastolarenari tinko lotuta izan duten maisu eta andereñoi omenaldia eskaini zitzaie. Mari Karmen Goñi, Sokorro Iñarrea, Marilu Apeztegia, Mari Paz Goñi, Kepa Dendarrieta, Juanjo Atxa, Maitte Iturralde, Mari Joxe Iturralde eta Jasone Altxuri adierazi zien Baztan Ikastolak bere esker ona urte askoan euskarazko hezkuntza bultzatzeko bere ahalegin etengabe eta irmoarengatik. Ikastolen alde egindako ibilbidearengatik eskertza aitortuta, Nafarroako Ikastolen Elkarteko ordezkariak eta Baztan Ikastolako lehendakari Elena



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Goitian, omendutako irakasleak. Beheitian, Urkorekin batera *Guk euskaraz kantari* eta ibilbidea irekitzen agintariak.

Zabaletak eman zieten eskura oroigarria Jose Luis Gorostidirren alabari, Pedro Miguel Etxenikeri eta Antontxu Zabalzari ondotik.

Txikiak handi ekimenaren baitan, Polonia-tik Elizondora etorri ziren kaxubierazko bi hiztun ere. Artur Jablonskik, kaxubieraren aldeko elkartearen izenean, eta Anna Kosciukiewicz-ek, Kaszebe irrati-kazetariak, NIEK eta Baztan Ikastolak hizkuntza xumeen eskubideak babesteko egindako urratsak go-

raipatu zituzten. Heldu den urteko Nafarroa Oinez besta antolatuko duten Erriberako Ibaalde eta Ereztzun ikastolei lekukoa eman zieten, Baztan Ikastolako zuzendari Iosune Ortega eta Elena Zabaleta lehendakariak.

Aipagarria izan zen, modu berean, Urko abeslariaren gidaritzapean 20.000 lagunek abestu zutela *Guk euskaraz* kantua gune ezberdinetan eta ikastoletako ikasleei zuzendutako Erronka Baztan Ikastolak irabazi zuela.

GERTAKARI ILUNA

Baina antolaketa, partehartze eta giro aldetik bikaina izan den Nafarroa Oinez biharan bertarekin iratzarri zen, ustezko sexu eraso batek ilundu baitzuen ospakizuna. Gertaera salatzeke, adierazpenak egin dituzte Nafarroako Ikastolen Elkartek, Balleko Etxeak, Baztango emakumeen mundu martxak eta bertze hainbat erakundek eta urriaren 21ean elkarretaratzeko jendetsua egin zen Elizondon.



www.nafarroaoinez.eus

AMA BAT.... 1000 ESKER!

BAZTAN

GIZARTEA → EPAITEGIAREN SENTENTZIA

Elizondoko Kasinoa da bere egoitza hartzen duen lurraren jabea

Balleko Etxeak zalantzan jarria zuen hori, baina Iruñeko Epaitegiak arrazoi eman dio elkarteari

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Jaime Urrutia karrikako 18an Kasinoko egoitzak hartzen duen 327 metro koadroko lur eremua Círculo de la Unión Kasinoarena dela ebatzi du Iruñeko Lehen Instantsiako Epaitegiak. Gisa honetara Kasinoari arrazoi ematen dio, jabetza zalantzan jarria baitzuen Balleko Etxeak, herriarena izan zitekeela erranez.

Sententziaren arabe-

ra, Círculo de la Unión elkarteak bere egoitza hartzen duen lur eremua erosi zuen duela 140 urte baino gehiago eta jabetza-titulu guztiak dauzka. Erosketa hau bi unetan egin zela dio sententziak. 1863. urtean, lurraren zatirik handiena erosi zuen, 278,30 metro koadro, Nafarroako Salmenta Batzordeak Desamortizazio Legearen arabera jarritako prezioa ordainduz. Gainerakoa, Balleko Etxeak eman zion 1864an.

Honela jakinarazi zuen urriaren 9an eskaintako prentsaurrean Eduardo Zubikoak, Kasino elkarteko presidentea. Berekin batera, Maria Urteaga idazkaria, Blas de Otazu abokatua eta Tomás Santos bokala

Kasino elkarteko arduradunak eta abokatua, sententziaren berri ematen.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ba al zenekien

Lekarozko Aroztegiako UGPSa geldiaraztea eskatuz 900 sinadura baino gehiago aurkeztu zituztela urriaren 16an Nafarroako Gobernu-ko erregistroan.

kripzioa egin aitzinetik ezta ondotik ere». Gainera, sententziaren arabera, «inolako lege babesik gabe egin zen» eta hortaz baliogabe tzen du 1975eko inskripzio hori.

Kasino Elkarteko arduradunek aipatu zuten, «lurraren eta erai-kinaren gaineko jabetza ziurtatzen duten hainbat eta hainbat agiri aurkeztu dizkiogu Balleko Etxeari, bai elkarteko artxibotik baita Nafarroako Artxibo Orokorretik lortuak, baina ho-

ri ez zitzaion nahikoa iruditu Udolari jabetza segurtatzeko, bai ordea Epaitegiari».

Balleko Etxeak elkartearen jabetza onartzen ez zuenez, «epaitegi-tarajoa behar izan dutela» aipatu dute Kasinotik, eta «beharrik, urtebete gehiago pasatuko balitz, 40 urte bete izanen baitziren 1975eko Erregistroan Balleko Etxearen izenean jarri zenetik eta okerra izan arren, errekurritu izan ez balitz, baliotua gelditu izanen litzateke».



arteka20
arkitektura eta zerbitzuak

www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610



KULTURA → FOLK AMETSETAN ZIKLOAN

Munduko musika ekarriko dute Arizkuneneara

Portugaleko talde batekin hasiko da azaroaren 8an

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 8an abiatuko da aurtien Baztango Udaleko Kultur Batzordeak Nafarroako Gobernuaren laguntzaz antolatzen duen Folk Ametsetan Zikloa Eli-

zondoko Arizkunenean. Igande arratsaldeko 7etan hasiko den emanaldian Melech Mechaya (Portugal musika klezmer) taldea ariko da.

Azaroaren 15ean, ordu eta leku berean Anne Etchegoyen kantari ezaguna ariko da eta azaroaren 22an, La Bojiganga iberiar tradiziozko musika izanen da entzungai.

KULTUR EGITARAU ABERATSAREN BAITAN

Saharako ahotsei buruzko erakusketa Elizondon

Azaroaren 2tik 15era Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Hegoa Institutuak eta Aranzadi Zientzia Elkar- teak egindako *Saharako ahotsak: ahanztuaren kontrako erresistentzia* izeneko erakuske- ra ikusgai izanen da aza- roaren 2tik 15era Elizon- doko Arizkunenea Kul- tur Etxean. Euskal Fon- doaren eskutik, Saha- raztan elkar- teak eta Baztango Udalak anto- latutako erakusketa as-

telehenetik ortziralera 17:00etatik 20:00etara ikusteko modua izanen da.

Aire zabaleko pintura lehiaketa

Aire zabaleko pintu- ra lehiaketa antolatu du Elizondoko Kasino el- kar- teak azaroaren 1ean, igande goizeko 8:30etik aitzinera.

Idazleekin Solasean

Idazleekin Solasean ekimenaren baitan, *Lo- rea Gernika, andrazko bat* liburuari buruz Kol-



UTZITAKO ARGAZKIA

Itzulegiko etxola berreraiki dute ehiztariek eta mendigoizaleek

2010. urtean Nafarroako Gobernuaren eskutik eta Baztango Ehiza eta Arran- tza Kirol elkartearen laguntzaz, Baztango Itzulegiko parajearen edozeinek era- biltzeko aterpe bat eraiki zen. Aterpea aunitz erabiltzen zuten ehiztariek, artzai- nek, mendigoizaleek... Baina, 2011. urtean intentzio txarrez betetako zenbait edo zenbaitzuren borondatez etxola hau erre egin zen. Hainbat ate jo ondoren, aurtengo uda eta udazkenaren hasieran Baztango Ehiza eta Arrantza Kirol El- kartekoek eta Baztango Mendigoizaleek etxola berreraiki dute. Lehenago be- zala, orain ere edozeinek erabiltzeko idekita egonen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berroetatik Pirinioetara

Berroetako lagun talde bat Piriniotara joan zen urriaren 10eko asteburuan. Bisau- rin mendia igo eta giro ederrean pasatu zuten eguna. Argazki honetan lagun haue- tariko batzuk ageri dira aipatutako mendi tontorrean.

do Izagirre idazlearekin solasteko aukera iza-

nen da azaroaren 2an, astelehen arratsaldeko

7etan Amaiurko elkar- tean.

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 688 605 182
ARIZKUN

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea
T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

URDAZUBI

GIZARTEA → ALKATEAK ERANTZUN DIO GEROA BAI-RI ETA LAGUNTZEKO PREST DAGOELA ADIERAZI

Udal kontuak ikuskatzea erabaki du Nafarroako Parlamentuak

Udal kudeaketa proba eta azalpenik gabe susmopean jartzea salatu du alkateak

TTIPI-TTAPA

Geroa Bai taldeak proposatuta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko bortz taldeek (Ahal Dugu, Geroa Bai, EH Bildu, PSN eta UPN taldeetako ordezkariak osatua) aho batez onartu dute, Unai Hualde parlamentariak urriaren 6an aurkezturiko ekimena. Ondorioz, Nafarroako Comptos Ganbarak Santiago Villares alkateak gobernatzen duen Herriko Etxearen 2009-2014 arteko kontuak ikuskatuko ditu.

ALKATEAREN ERANTZUNA

Santiago Villares alkatearen ustez, ez da zuzena Herriko Etxearen kudeaketa «arrazoi -



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUAK

Alkerdiko harrobiaz solasean Nafarroako Gobernuarekin

Urriaren 6an Urdazubi Elgarrekin taldeko kideek Manu Aierdi lehendakari ordearekin bilkura egin zuten, Alkerdiko harrobiaz mintzatzeko. Aierdik harrobian leherketak egiteko debekua altxatzeko erabakia aurreratu zien. Hala ere, harrobiari buruz udalak hartzen duen erabakia errespetatzeko konpromisioa hartu zuten.

rik eman gabe zalantzan jartzea», eta medioetara igorritako idatzian dioenez, «Herriko Etxeak ez du diru publikorik erabili zuzenak ez ziren obrak egiteko». Azkar taldearen kudeaketa gardena dela adierazi ostean, 2011n egindako kontu ikuskatzea aipatu du, izan ere «orduan ez zen normala ez zen gauzarik aurkitu».

Hori dela eta, «erantzukizunez eta zuhurtziaz jardutea» eskatu die agintariei.

2007an hartu zuten udalaren ardura Azkar taldeak. Villaresen hitzetan, orduan 430.957 euroko saldoa zuen Herriko Etxeak, 1.023.888 euroko zorrarekin. Legealdia akitzerakoan, berriz, udalaren saldoak «570.577 euro arte

egin zuten goiti eta zorrak 375.989 eurora jaitsi. 2015eko apirilean, saldoa 1.369.000 euro-ra igo zen».

URDAZUBI ELGARREKIN POZIK

Oposizioko taldearen ustez berri ona da Parlamentuko Mahaik onarturiko kontuen ikuskapena, izan ere «baliabide publikoen kudea-

ketan ezinbestekoak dira gardentasuna eta erantzunkizuna». Urdazubi Elgarrekin taldearen ustez, Parlamentuaren proposamen hori logikoa da, izan ere azken hauteskundeetan hautaturiko 7 zinegotzietatik 6 berriak dira.

Azken 4 hilabetetean, Urdazubi Elgarrekin taldeak hiru aldiz eskatu du Kontu Ganbarak kontuak ikuskatzea. Oposizioko taldearen proposamenaren kontra bozkatu zuten alkateak eta bere taldeko hiru zinegotziek.

ANDRES DIHASARRIREN GEZURTAPENA

Kontu Ganbararen kontu-ikuskatzearen harira, eta Santiago Villaresek errandakoei erantzunez, Andres Diharasarri alkate ohiak ere bere iritzia eman du. Bere ustez, azken urteotan errepikatu den argudioa faltsua da. Hau da, Urtxume taldearen alkate-tza garaian Herriko Etxeak ez zuen inolako zorrik utzi, «eta gutxiago Villaresek aipatzen dituen 1.023.888 euro horiek». Bere momentuan gaia argitzeko idatzi bat igorri zuen Diharasarrik etxeetara, hortaz, ez da onargarria berriro gaia mahaigaineratzea.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinearik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

Pinturas
lñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
 31711 URDAZUBI (Na)

**FATXADAK,
 BARNEALDEAK
 eta
 PLADURRA**

pinturasalzuyet@yahoo.es

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3 km
 URDAZUBI

KULTURA → BERTSULARI NAFAR-AMERIKARRAK

Curutchet eta Goikoetxea bertsulariek kantatu dute Larraldean

Amets Arzallus eta Julio Soto lagun zituztela

Franck DOLOSOR

Johnny Curutchet eta Martin Goikoetxea bertsulari nafar-amerikarrak bisitan ibili dira zonbait egunez Euskal Herrian barna, bertzeak bertze Larraldean Amotzen. Andoni Iturriotzek xahar berri duen etxaldean *Bertsolari* filma ikusi eta hainbat bertsu kantatzeko parada izan zuten, umore ezin hobean, Amets Arzallus eta Julio Sotorekin batean.

Euskaldun ainitz bezala gazteak zirelarik Kaliforniarat joan ziren Curutchet eta Goikoetxea bizi hobe baten bila. Dena den, arbasoen sortetria gogoan atxiki dute beti. Curutchet San Franciscon sortu zen eta urte bat bertzerik ez zuelarik Ezterenzubirat bizitzera joan zen gurasoekin. Geroago, hementz urte bete zituelarik San Franciscorat itzuli zen, 1966an hain zuzen. Curutcheten anaia San Franciscon bizi zen orduan eta senideari esker erraztasunak izan zituen bertan laketzeko. Zailtasunak izan zituen

ahatik hizkuntzarekin bainan hastapen batean euskaldunez inguratua zen. Gaurko egunean, Ameriketako Estatu Batuetan diren euskaradunen kopurua apaltzen ari dela uste du bertsulariak. Halere, euskaraz maiz mintzatzeko parada izaten du, bereziki bertsularitzari esker Kalifornian bizi diren euskaldunak elkartzen direlarik bertsuak kantatzeko ohitura baitute. Gazteek aldiz, bide hori ez dutela segitu deitoratzen du Curutchetek.

Goikoetxea Wyoming estatuan bizi denez 1.600 kilometroko bidaiak egin behar izaten ditu Curutchet adiskidearekin bertsutan aritzeko. Gutitan elkartzeko parada izaten dute eta maiz bertsularitza doi bat baztertua dutela dio moto indartsuak saltzen dituen Gorrizarak. 18 urtetan utzi zuen Nafarroa Garaia 2.000 ardiaren artzaina bilakatzeko.

Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundeak gomiturik, Bertsolarien Lagunak, Bertsozale Elkartea eta Mintzola Fundazioaren partaidetzarekin, Curutchet eta Goikoetxeak bertsularitzaren in-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Amets Arzallus eta Julio Sotorekin kantatzeko aukera izan zuten Johnny Curutchet eta Martin Goikoetxea bertsulari nafar-amerikarrek, hainbat bertsuzalaren aitzinean.

guruan hainbat ekimenetan parte hartu dute, Lartzabaleko kolegioko ikasleekin edo sariak banatuz gazteen artean Baigorri Hernandorenaren omenez egin den

bertsu lehiaketan. Haiekin batean herriz herri ibili da Frantxua Bidaurretak aldudarra, San Franciscoko Euskal Etxeko presidenteordea. Egun hauetan lo-

re eta esker oneko hitz ainitz entzun dituzte hiru euskaltzaleek. Euskal Herria uztean zorretan daudela ustearekin zeharkatu dute berri Atlantiko itsasoa...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Senperrak Oskorriekin

Oskorriak azken kantaldia eskaini zuen Baionan urriaren 10ean. Gaitzeko giroa piztu zuten Lauga kiroldegian eta eskerrak eman zizkieten hainbat segitzaileri, hauen artean zenbait herritarrei. Kantaldi gehiago emanen dituzte ondoko egunetan Iruñean azaroaren 7an, Maulen 14ean eta Bilbon 22an. Agur Oskorri!

SARA

GIZARTEA → AZAROTIK GOITI

Ekoizleen merkatua larunbatetan eginen dute

Udazken eta neguan, goizeko 9etatik 1ak arte


Joana GERENDIAIN

Orain arte ekoizleen merkatua ostirala arratsetan egiten zen udan. Azarotik goiti eta martxo arte larunbata goizetan eginen da, 9etatik 1ak arte. Neguan, ondoko ekoizleak aurkitzen ahalko dituzue merkatuan: Aurélie Berasategui Idiki eta Kinto haragiarekin, Jean Marie Irigoien xerrikiarekin, Joana Urbistondo sagarno eta ardi gasnarekin,

Morgane Krill ardi gasnarekin, Maider Azarete eta Mirentxu Azkarraga barazkiekin, Sylvie eta Alain Fourcade ahatekiarekin, Jean Baptiste Bacardatz oilaskokiarekin, Jokin Zalduñbide tisanarekin, Olivier Besson eztiarekin, Yoanna Forton ahuntz gasnarekin eta Leire Iturralde Ezpeletako piperrarekin.

Pastiza salmenta

Azaroaren 1ean, Omiasaindu egunez, Zazpiak Bat dantza elkarteak pastizak salduko ditu plazan, goizeko 9etatik goiti.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xutik taldeak eta DD Balporesek giroa jarriko dute Garagardo Bestan.

Zazpiak bat

Zazpiak bat dantza taldeak bere biltzar nagusia eginen du azaroaren 6an, ostiral gauarekin, 7etan gazteen gelan (Petit Casinoren ondoan).

Garagardoaren besta

Azaroaren 7an, garagardoaren besta ospatuko da Herriko Etxeko Edantegian. Arratsaldeko 3etatik goiti ostatuak antolatu duen pala txapelketaren finalak jokatu dira. Arratseko 7etan zintzur bustitze bat eta garagardo dastaketa bat izanen dira: Irlandako Guinness,

Alemaniko Paulaner Salvator, Belgikako Blanche de Bruxelles, Euskal Herriko Bob's Beer horia eta Frantziako Pelforth horia garagardoak proposatuak izanen dira garagardo zaleei. Gaueko 10etatik goiti Xutik taldeak eta DJ Balporesek giroa emanen dute ostatuan. Bertan ogitartekoak salduko dira. Ostatua he-tsiko delarik, gaztetxea irekiko da gaualdia segitzeko.

Kirol emaitzak

Urriaren 10ean, esku baloian 11 urte baino guttiagokoek 13-12 galdu dute Urruñaren kontra, 15 urte azpikoek ere Kan-

boren kontra 20-14, Seniorrek ere 31-24 Bosdarrosen kontra. 13 urte azpikoek irabazi dute 20-17 Nafarroaren kontra. Urriaren 17an esku baloiko ekipa guziek, 18 urte azpikoak izan ezik, garaipena ezagutu dute: 11 urte azpikoek 14-8 Nafarroaren kontra, 13 urte azpikoek 33-26 Iri-sarriren kontra, 15 urte azpikoek 20-5 Donapaleuren kontra eta seniorrek 19-17 Barzunen kontra. 18 urte azpikoek 34-13 galdu dute Bokaleren kontra.

Urriaren 18an errugbilariek sasoineko lehen garaipena ezagutu dute Narroseren kontra, 10-9 irabaziz.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



**ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Ruben Ostiz Telletxea eta **Maidar Atxa Agerre**, Almandozkoak, urriaren 10ean.
Josu Apeztegia Ibarra eta **Aitziber Arretxea Gorosterrazu**, Sunbillakoak, urriaren 17an.
Alexandre Chaput eta **Anna Roudier**, Sarakoak, irailaren 26an.
Thomas Dausfrene eta **Charlotte D'Aleman**, Sarakoak urriaren 3an.
Alain Seminario eta **Magali Brasque**, Sarakoak, urriaren 10ean.
Raphael Goienetxe eta **Maite Zunda**, Sarakoak, urriaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Markel Huizi Urroz, Leitzakoa, irailaren 12an.
Aner Olano Loiarte, Leitzakoa, irailaren 19an.
Xabat Azkarraga Mortalena, Azpilkuetakoa, urriaren 8an.
Xane Iriarte Sansinena, Urdazubikoa, irailaren 24an.
Irati Irigoien Telletxea, Doneztebekoa, urriaren 6an.
Sara Guilsou, Sarakoa, irailaren 16an.
Libe Irigoien Ballester, Lesakakoa, urriaren 17an.
Helene Rekondo Ojer, Lesakakoa, urriaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Clara Jimenez Elizalde, Arizkungoa, urriaren 8an, 86 urte.
Eleuterio Migelena Iguzkiagirre, Iganztikoa, urriaren 9an, 75 urte.
Antonio Galzagorri Jorajuria, Sunbillakoa, urriaren 10ean, 90 urte.
Isabel Plaza Lasette, Almandozkoa, urriaren 11n, 100 urte.
Josefina Danboriena Arburua, Etxalarkoa, urriaren 12an, 50 urte.
Maria Manuela Balda Arraztio, Leitzakoa, urriaren 13an, 86 urte.
Jose Mari Joto Arretxea Oharriz, Elizondokoa, urriaren 16an, 64 urte.
Juan Matxikote Mikelperizena, Berakoa, urriaren 18an, 89 urte.
Verónica Barrenetxe Zelaieta, Berroetakoa, urriaren 19an, 92 urte.
Gérard Chavanne, Sarakoa, urriaren 5ean, 78 urte.
Mari Paz Agerre Vergier, Amaiurkoa, urriaren 19an, 91 urte.



Milagros MARITXALAR ALZUGARAI

Lesakan, 2014ko abuztuaren 6an

Joan zinenetik, nahiz eta triste igaro zaigun denbora hau da oraindik gure artean bizirik dirauzun froga zutaz oroitzuz, irri goxo bat heldu da gure ahora zuk emandako guztia beti gurekin geldituko da.

ZURE FAMILIA



Oroigarriak egiten ditugu

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

PILOTA → GAZTE MAILAN BURUZ BURU

Enaitz Antso oronoztarra Nafarroako txapeldun

18-14 irabazi zion finalean Salaberria goizuetarrari urriaren 12an Labriten

TTIPI-TTAPA

Zugarralde taldean ari den Enaitz Antso oronoztarrak Nafarroako Kirol Jolasetako buruz

buruko pilota txapelketa irabazi zuen urriaren 12an, Labriten jokatu-tako finalean Erreka taldeko Iker Salaberria goizuetarrari 14-18 irabazita.

Berdintasun handiko finala izan zen, baina, launa, bederatzina eta hamarna berdindu ondotik, 13-11 eta 14-12 aitzinetik joan zen goizuetarra, baina oronoztarrak, berriz ere ha-



UTZITAKO ARGAZKIA

Enaitz Antso txapelarekin eta Iker Salaberria azpitxapeldun, bigarren mailako larruzko paleta txapelketako Aisa txapelduna, Rodriguez azpitxapelduna eta Nafarroako Pilota Federazioko ordezkariak.

malauna berdintzea lortu zuen. Hortik aitzinerako lau tantuak Antsok

egin zituen: lehenbizikoa, Salaberriak zabalerako egindako dejadak

txapa jo zuenean, hurrengo biak sakez eta azkena, dejada batekin.



Baztan eta Beti Gazteko neskak, Giltxaurdiko futbol zelaian.

ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

FUTBOLA → URRIAREN 17AN GILTXAURDIN

Lehen aldiz emakumeen ekipoa zelairatu du Baztan Futbol Taldeak

Estreineko partidari 1-3 galdu zuen Beti Gazteren kontra

TTIPI-TTAPA

1925. urtean sortu zenetik, lehen aldiz emakumeen ekipoa zelairatu du Baztan Futbol Taldeak. Zehazki, futbol 8an hasi da Nafarroako

ligan eta estreineko partida urriaren 17an jokatu zuen Giltxaurdi futbol zelaian Beti Gazteren kontra. Lesakarrek 1-3 irabazi zuten derbia eta Naiara Zaldainek

egin zuen Baztan Futbol Taldeko nesken lehen gola. Gema Martiarena, Miguel Angel Perez eta Pello San Millanen gidaritzapean ari dira lanean.

FUTBOLA

Baztanek eta Aurrerak lehen garaipenak

TTIPI-TTAPA

Baztan eta Leitzako futbol zaleek esperatu behar izan dute aurten talde nagusien lehen garaipenak ikusteko. Hirugarren mailarako itzuleran, Baztan Futbol Taldeak bederatzigarren jardunaldian lortu zituen lehen puntuak, Txantreari Giltxaurdin irabazita. Aurrerak, Preferente mailan, seigarren jardunaldian lortu zuen lehen garaipena Arkiskilen. Bertze aldean, Donztebe Futbol Taldea dago. Hau idazterakotan, ligan jokatu dituen sei partidak irabazi ditu eta Nafarroako Erregionaleko lehen mailako lider sendoa da.

HERRI KIROLA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Denboraldi gogorrari ekin berri dio Beti Gazteko sokatira taldeak

Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketen ondotik, otsailean Herbeheretan jokatu den Munduko txapelketan aritzekoa da



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean Nafarroako txapeldun izan zen Beti Gazte, bi kategoriatan.

TTIPI-TTAPA |

Nafarroako 8x8 sokatira txapelketa urriaren 25ean abiatu da. Gizonetzkoek 600 kiloko kategorian jokatu du, te bakarrik eta Lesakako Beti Gazte da eskualdeko ordezkari bakarra. Sei seiren kontrako txapelketa mistoa ere jokoan da, 420 kiloko kategorian eta hemen ez da eskualdeko tiralaririk izanen.

Lehen jardunaldia Ta-

fallako pilotalekuan jokatu zuten igandean. Gizonetzkoetan, 600 kiloko kategorian, Lesakako Beti Gaztekin batera, Berriozar eta Txantrea ari dira lehian. 6x6 txapelketa mistoan, berriaz, 420 kiloko kategorian, Berriozar, Txantrea eta Kaskallueta ari dira.

Bigarren jardunaldia urriaren 31n, larunbatean 18:00etatik aitzinera jokatu dute Berriozarko pilotaleku berrian

eta hirugarren eta hondar jardunaldia azaroaren 15ean, igandean 12:30ean jokatu du te Aldatzeko pilotalekuan.

AZAROAREN 7AN MIARRITZEN

Nafarroako txapelketako azkenaurreko eta azken saioen artean, azaroaren 7an Miarritzen eginen den Nazioarteko sokatira txapelketa batean ere par-

te hartuko du Beti Gazteko sokatira taldeak. Ñapurrak taldeak antolatutako topaketan, hama talde ariko dira, tartean azkeneko Munduko txapelketan 560 kilotan txapeldun izan zen Ipar Irlandako County Club, Ingalaterrako Kilroe historikoa, Herbehereak edo Afrikako taldeak ere izanen dira, Euskal Herrikoekin batera. Taldeko gazteenek esperientzia hartzeko

ere baliagarria izanen da, Nafarroako eta Euskal Herriko lau eta zortziko txapelketen ondotik, heldu den otsailaren 18tik 21era Herbeheretako Volendam hirian jokatu den Munduko txapelketan aritzekoak baitira lesakarrak.

Nafarroan 600 kiloko kategorian zortzina-ka aritu ondotik, Euskal Herriko launakako txapelketan 300 kiloko kategorian ariko dira Beti Gaztekoak eta zortzina-ka txapelketan kategoriaz guztietan, 680, 640, 600 eta 560 kilotan.

Lesakako taldeak garai bateko historikoak eta gazteak biltzen ditu, Amairuko taldetik etorritako Juanma Irigoien eta Lander Landiribar eta Ezpeletako Estefan Mitxelenarekin batera.

HERRI KIROLA → URRIAREN 30EAN ELIZONDOKO FERIETAN

Euskal Herriko 2. mailako aizkora txapelketa jokoan

Ruben Saralegi leitzarria izanen da eskualdeko ordezkari bakarra

TTIPI-TTAPA

Herri kirolak maite dituztenek ere izanen dute non gozatua urriaren

30ean Elizondoko ferietan, eguerdiko 12etan hasita jokatu baita Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finala Iriarte pilotalekuan (euria egiten balu, Baztan pilotalekuan). Finala ikusteko 10 euro ordaindu beharko da sarrera. Sei aizkolari izanen dira lehian. Ru-

ben Saralegi leitzarria izanen da eskualdeko bakarra eta berekin batera berriki Nafarroako txapelketa nagusia irabazi duen Iker Vicente (Otsagi), Gipuzkoako Jesus Mari Mujika, Luis Mari Txapartegi eta Aratz Mugertza eta Arabako Arkaitz Jauregi lehiatuko dira. Aizkolari



UTZITAKO ARGAZKIA

Txapelaren bila lehiatuko den seikotea, kartelean.


bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako, eta bi oinbiko enbor moztu beharko ditu. Lehen bi

sailkatuak mailaz igo eta datorren urtean lehen mailan aritzeko aukera izanen dute.

urriak 29 - azaroak 13

Informazioa bidaltzeko: info@titi-ttapa.eus edo 948 63 54 58

Bakarrizketa



ARANTZA | 2015.10.31
>> **Umorearen txanda udazkeneko kulturaldiaren baitan**

Unai Ormaetxea gazte andoaindarrak bakarrizketa umoretsua eskainiko du eskolan arratsaldeko 6etatik aitzinera.

Musika



BERA | 2015.10.31
Suediako kantarien ahotsekin gozatzeko aukera

Beng Ollen zuzendariaren gidaritzapean kantuan ariko dira Suediako Stockholms Musikgymnasium abesbatzakoak. Kultur Etxean 20:00etatik aitzinera.

Erakusketa



ELIZONDO | 2015.11.02-15
Ahazturaren kontra sahararren ahotsa aditzeko aukera

Tindufeko kanpalekuetan eta Marokok okupatzen duen Mendebaldeko Saharan bizi diren pertsonen egoera ikus daiteke proposamen bisual honetan.

LESAKA

Beti Gazteren argazki lehiaketa'

Urriaren 31ra arte aurkeztu litezke lanak.

BAZTAN-BIDASOA

Ehiza jardunaldi gastronomikoen baitan Argazki lehiaketa

Azaroaren 29ra arte egonen da argazkiak bidaltzeko aukera. Xehetasunak 648. aldizkarian.

Zinea

LEITZA

'Nebraska'

Urriaren 30ean eta azaroaren 1ean filma ikusgai.

'Pride'

Azaroaren 6 eta 8an, Ostiralean 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

Dantza

BERA

'Nor da otsoaren beldur'

Azaroaren 16an, Haurrendako dantza ikuskizuna, 17:30ean Kultur Etxean. Sarre-rak: 3 euro.

Musika

LEITZA

Su ta gar taldea zuzenean

Urriaren 30ean, Torrea Libre! ekimenen baitan.

BERA

Stockholms Musikgymnasium abesbatzaren saioa

Urriaren 31n, Suediako abesbatzak emanaldia eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan.

Erakusketak

BERTIZ

'Nire basorako bozetoak'

Azaroaren 2ra arte. Diana Iniestaren erakusketa. Bertizko parke naturalean. (Egunero irekita: 10:30-13:30 eta 16:00-17:00etara).

ELIZONDO

'Saharako ahotsak: ahazturaren kontrako erresistentzia'

Azaroaren 2tik 15era. Arizkunenean, astelehenetik ortziralerara 17:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak

ELIZONDO

'Irudi eta hizkuntzaren erabilera ez sexista'

Azaroaren 11n Berdintasunaren inguruko formazio saio irekia Arizkunenean. 17:00etatik 19:00etara. Dohainik.

ETXALAR

'Sukaldaritza ikastaroa'

Azaroaren 6tik aitzinera Larraburu elkarteak antolatuta, sei astez eskainiko dute. Iñaki Pikabea izanen da irakaslea.

Antzerkia

BERA

XVII. Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 6an, *Ekotikopatetiko*a antzezlanaren 22:00etatik aitzinera Ikuitu ostatuan.

Azaroaren 13an, *Adarretatik zintzilik* antzezlanaren 22:00etatik aitzinera Bidaxka ostatuan, 22:00etan.

Azaroaren 22an, *Desentxufatuak* antzezlanaren Xugan, 22:00etan.

Jardunaldiak

BAZTAN-BIDASOA

25. Ehiza jardunaldi gastronomikoak

Urriaren 25etik azaroaren 29ra, Baztan-Bidasoa Turismoak antolatuta.

Lehiaketak

ELIZONDO

Aire zabaleko pintura lehiaketa'

Azaroaren 1ean Casino Elkarteak antolatuta. 08:30etik aitzinera.

PROPOSAMENA

AURTITZ

Azken bestak izatearen xarma

Aurtizko Sanmartinak izaten dira eskualdeko herrietako besten zerrendari bukaera ematen dietenak. Eta bukaera borobila ematea komeni denez, azaroaren 6an txupinazoa bota eta 11ra arte luzatuko da besta. Tartean, afari, musika... denetarik izanen da. Ajearen aurka formula ere badute, astelehenari aurre egiteko, atsedeen eguna izanen da azaroaren 9a.



Solasaldiak

ELIZONDO

'Nekazal borroka eta borroka feminista. Esperientzia Brasilen. Aunitz ikasteko'

Urriaren 29an. Saioa Iraola eta Beatriz Casadok solastuko dute gaiaz, 19:00etatik aitzinera, Arizkunenean.

'Lorea Gernika, Andrazko bat liburuaz'

Azaroaren 2an. Koldo Izagirre idazlearekin solasaldia, 19:00etan Amaur Elkartearen.

ETXALAR

Txistu kontzertu didaktikoa

Urriaren 30ean, Irungo udal txistulari bandaren eskutik, Kultur etxean 14:20an.

ELIZONDO

Folk ametsetan zikloa

Azaroaren 8an, Melech Mechaya musikariaren saioarekin hasiko da zikloa 19:00etan Arizkunenean. **15ean**, Ane Etchegoien ariko da kantuan, ordu eta leku berean eta **22an** La Bojiganga.

BERA

Tenpora taldearen emanaldia

Azaroaren 21ean, 20:00etan Kultur Etxean. Sarrerak: 6 euro.

Bertsolaritza

DONAMARIA

Soto eta Zubeldiarekin bertso-bazkaria

Azaroaren 7an, Herriko ostatuan Malerrekako Kultur Ibilbidearen baitan.

Ospakizunak

ARANTZA

Udazkeneko kulturaldia

Urriaren 30 eta 31n, Ipuin kontalaria, bakarriketa... eta **azaroaren 1ean** Baserriarren eguna antolatuko dituzte. Xehetasunak 21. orrialdean.

ARANO

Sanmartin eguna

Azaroaren 7an, .Egitaraua 30.orrialdean.

AURTIZ

Herriko bestak

Azaroaren 6tik 11ra, Sanmartinak ospatuko dituzte. Egitaraua 25.orrialdean.


ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Tere Irastortzak heriotza izan du helduleku nagusi Pamiela argitaletxearekin argitaratu berri duen poema liburuan. Gertuko heriotzak utzitako arrastoak modu poetikoan azaleratu ditu, baina tragikotasunik gabe. 80 poema inguru idatzi ditu, eta lau zatitan banaturik sailkatu. Zati bakoitzari zenbaki baten izenburua eman dio, 1, 2, 3 eta 4, eta zenbaki ordinal bakoitzarekin ere sarrera poetiko bat osatu du, zenbaki hark iradokitzen diona agerian jarritz, beti ere bizitzaren eta heriotzaren arteko dema azalduz, izatearen eta ez izatearen artean etenik dagoen edo ez gogoeta eginez.

Musika



Itzuli da dantzatokietara Ze Esatek taldea! Ez hala nola gainera, *Inoiz egin duten diskorik onenarekin* bueltatu dira. Hala dio behintzat Bonberenea Ekintzak zigiluarekin argitaratutako disko honen izenburuak (*Inoiz egin dugun diskorik onena*). Egia esan, aukera handiak izan ditzake horrela izateko. Hasteko, urteen poderioz irabazitako esperientziak ematen dien jakinduria grabatutako abestietan islatuta geratu delako. Horrela, egunerokotasunean gertatzen diren egoera edo albisteak euren begirada kritiko eta sarkastikotik abiatuta margotzeko gai izan dira beste behin. Gaiak anitzak dira eta ez da ia inor salbatzen euren ikuspegi kritikotik.

Internet



Zinemazale euskaldun lantalde batek osatzen du *Zinea.eus* ataria. Zinemaren alorrean euskara hutseko webgune baten falta zegoela ikusita, hasi ziren lanean. Telebista, film laburrak, produkzio handiak; Euskal Herrian eginak zein euskal herriarrek gauzatutakoak... horiek guztiak, eta gehiago topatuko dituzue bertan. Hainbat ataletan banatuta dago webgunea. Fokua atalean, esaterako, euskal industrian mugitzen diren profesionalen ikus-entzunezko elkarrizketak egiten dizkiete. Itzalpean lan egiten dutenei ere ematen diete ahotsa; teknikoak, makillatzaileak... Horrez gain, zinemaren inguruko albisteak, asteroko estreinaldiak, filmatzen ari diren lanak eta lehiaketak ere ematen dituzte atarian. Eta egileen, produktuen eta ikusleen bilgunea izatea ere nahi dutenez, informazioa trukatzeko bitartekoak ere eskaintzen ditu.

GOIZUETA

Jubilatuaren asteburua

Azaroaren 6 eta 7an, Umore onak antolatuta. Xehetasunak 31.orrialdean.

SARA

Garagardoaren besta

Azaroaren 7an, Herriko etxeko edantegian 19:00etatik aitzinera. Xehetasunak 38. orrialdean

Mendi-ateraldiak

BERA

Kottoren 10.urteurrenean ateraldia

Azaroaren 1ean. Goizeko 10:30ean Altzateko plazatik abiatu Otsandara mendiz.

LEITZA

Leitza kaxkoz kaxko

Urriaren 31n, Kortekoborda eta Plazaola arteko bidea egingen dute. **Azaroaren 28an** Plazaola eta Rezola artekoa eta **abenduarien 19an** Rezola eta Kortekoborda artekoa.

Kirola

ELIZONDO

Euskal Herriko II.Mailako Aizkora txapelketako finala

Urriaren 30ean. Eguerdiko 12:00etan hasita Iriarte pilotalekuan.

LESAKA

Aginako VI.igoera

Urriaren 31n. Goizeko 8:30ean hasita.

DONEZTEBE

Ferietako herri kirol jaialdia

Azaroaren 13an. 18:00etatik aitzinera. Xehetasunak gehigarri berezian.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL
 INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldea despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m²ko terrazarekin. Berritu beharra. **948 637359.**



ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. **646 774117.**

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58****info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI **IZANEZ GERO 10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

LESAKA. Pisua salgai, herri erdian, eguzkitsua eta oso ondo kokatua. Hall, sukaldea, arropa zintzilikatzeko tokia, 2 logela, egongela handia, komuna eta trastelekua. Aukeran garaje plaza, beste trasteleku batekin. Igogailua garajeraino. Sarbideetan oztoporik gabe. 186.000 eurotan. **657 708866.**



ERATSUN. 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. **620 676886.**

DONEZTEBE. Bi logelako pisua salgai. Oso egoera onean, 15 m²ko trastelekua barne. 110.000 euro. **630 160353.**

BERA. Legia karrikan 58 m²ko pisua salgai. 2. solairuan, hegoalderantz orientatua. Logela bat, egongela, sukalde ekipatua eta komuna ditu. Hari musikal eta kalefakzioarekin. Igogailua eta kotxearendako plaza bat du. **645 700549.**

ETXEBIZITZAK
 errentan emateko

LESAKA. 70 m²ko pisua errentan eman nahi da. **691 640856 / 948 637570.**

LESAKA. Logelak alokatzen ditugu (aste osorako), sukaldea ibiltzeko aukerarekin. Prezio berezian zonaldean lanean ari direnentzako. Urritik aitzinera. Galde-tu konpromisorik gabe. **948 637862 / 678 855056.**

ETXALAR. Etxebizitza unifamiliarra errentan

eman nahi da, sukalde-egongela, bi logela, bi komun, portxea eta etxe inguruko lur eremuarekin. Heretik 5 minutura. Mobleztatua. Errenta, hilean 490 euro. **661 898970.**

LESAKA. Ote karrikan pisua errentan eman nahi da. Sukalde elektrikoa eta beheko sua, ganbara, balkoia eta bajearekin. **661 262531.**

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua errentan eman nahi da. Urbanizazio pribatuan, igerileku, tenis, frontoi eta jardun komunitarioekin. Azken solairua. Egongela-sukaldea, logela bat, komuna, trasteroa, garajea, berogailu instalazioa, igogailua. Mobleztatua. Argazkiak fotocasan. Errenta, hilean 350 euro. **661 898970.**

BERA. Altxate plazan 85 m²ko etxebizitza

errentan eman nahi da. Igogailuarekin, 3 logela, egongela, sukalde handia eta berogailua ditu. **685 727560 / 665 716126.**

BERA. Legia karrikan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bainugela eta arropa zabaltzeko lekua ditu. Balkoi ederra. Osasun etxearen ondoan. **629 970002 / 686 803311.**

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. Mobleztatua, 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, berogailua eta igogailua baditu. **617 904941.**

BERA. Legia karrikan pisua errentan ematen da. 3 logela, 2 komun eta trastelekuarekin. **678 363398 / 678 305250.**

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. **642 993776.**

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

Elizondo eta Donezteben lanean hasi berri den neska bat naiz eta logela/pisua bilatzen dut konpartitzeko edota errentan hartzeko luzerako. **689 765896.**

GARAJEAK/LOKALA

errentan emateko

BERA. Bidasoa karrikan, Telefonica ondo-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 28 €

Zerri gizena
1,100 € kiloak.

Zerramak:
0,410 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,95
1.koa 3,72
2.koa 3,52
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,23
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,60/8,60
8-10 kilokoak: 7,30/7,50

an, 35 m²ko garaje itxia errentan eman nahi, erosteko aukerarekin. **664 266 131**

DONEZTEBE. Herri sarrreran dagoen 165 m²ko lokal komertziala errentan eman edo saldu nahi da erretiroagatik. Hagitz argitsua da, erakusleho ederrekin. Interesatuak deitu konpromisorik gabe **630 510918** telefonora.



LURRAK/ORUBEAK salgai

BERA. Bifamiliarrak erakitzeko prest dauden partzela urbanizatuak salgai. **618 963226**

LANA eskariak

Gizonezkoa lan bila dabil. Asteburuetan egun osoan eta astean zehar arratsaldeko zazpietatik goizeko zazpiak arte aritzeko disponibilitatearekin. Gidari profesionala lanbidez, adineko eta haurrak zaintzen, ospitaleetan gaua pasatzen eta obrako lanetan ere esperientzia duena. **697 246133.**

Elizondo eta inguruan, lan bila dabilen emakumeak **adinekoak zaindu edo komertzioaren batean** lan egin nahiko luke. Behar izanez gero deitu. **606 552350.**

Emakumea lan bila dabil **interna edo orduka.** Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientziaduna. Garbiketa eta zerbitzari lanak egin edo lanbide berriak ere ikasketek prest. **631 369825.**

Lan bila dabilen **gizon bat** naiz. Sektore desberdinetan esperientzia daukat: eraikuntzan, basoko lanetan, garraio-lari, abeltzaintzan... prest nago **edozein sektoretan lan egiteko.** Disponibilitate osoa.

Interesa duenak deitu **608 720859.**

Elizondo eta inguruan lan bila dabilen **emakume bat** naiz. **Arlo askotan esperientziaduna:** ostalaritzan, lorezaintzan, garbiketan, komertzioan eta minusbaliotasuna duten pertsonak zaintzen lan egin dut. Zaintzaile titulua ere badut. Lan eskaintza- ren bat baduzue deitu, **637 153690.**

Lan bila nabilen **neska gaztea** naiz. Haurrak zaintzen esperientzia dut baita komertzioan ere. Hala ere, beste arloetan aritzeko ere prest nago. **722 516485.**

Malerrekako emakumeak bere burua eskaintzen du **gauzez lan egiteko**, edozein gauzetan. **679 210910.**

Lesaka edo inguruan lan bila dabilen emakumeak portalak garbitu edo adinekoak zainduko lituzke. **642 993776.**

Ordutza lan bila nabilen emakume bat naiz. Sukaldaritzan esperientziaduna naiz eta baita zaintza lanetan ere. Sukaldari, garbiketa edo adinekoak zaintzeko eskaintzen naiz. Beste arloetan ere interesatua nago. Interesa baduzue deitu **689 449933.**

LANA eskaintzak

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean sukaldari laguntzailea behar da. Esperientziarekin. **948 599039.**

LESACA. Atxaspi hotolean garbitzailea behar dugu. Interesatuak deitu **948 637536/647 456611** edo idatzi hotela@atxaspi.com-era.

Ibardin asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar da. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. Interesa dutenek deitu **948630311ra.**

ZERBITZUAK klase partikularrak

BORTZIRIAK. Uniber-tsitateko ikasle bat naiz,

klase partikularrak ematen nizkieke Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleei. Ingelesko C1 maila daukat eta mugitzeko aukera. **626 452614.**

MOTORRAK salgai

Automóviles IMOBIA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

PEUGEOT PARTNER 4X4
2011ko MODELOA - 100.000 KM
FORD C-MAX
2012 URTEKOA - 80.000 KM
CITROEN C3 1.4 HDI
570 KM - BERRIA
VW POLO 1.2 TDI
5 ATEKOA - 2011 URTEKOA
VW GOLF 1.6 TDI
5 ATEKOA - TXURIA - 2012 URTEKOA

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimobia.com

Suzuki Vitara 1.9 kotoxea salgai. Ongi zaindua. **948 637912.**



Renault Trafic Generation furgoneta salgai. 2007 urtekoa, 150 zaldi, 65.000 kilometro ditu. Prestatua dago, mahaia, ohea eta buelta ematen duten eserlekuak. Atzeko aldean bizikletak eramateko Carrybike-a dauka. **699 054216.**



ANIMALIAK salgai

Txerri bat saltzen dut, kanpoan hazia eta etxeko janari eta barazkiekin. 90 bat kilo ditu **948 637862 / 678 855056.**

Persa arrazako lau katume salgai: 2 ar eta 2 eme. **687 346415** (arratsaldez deitu)



ANIMALIAK oparitzeko

LEITZA. Hilabeteko zakurrak oparitzeko. **948 510224.**

Zakurra oparitzeko. **636 586335.**

ANIMALIAK denetarik

Collie zakurkume bila nabil. Arra bada hobe eta aita eta ama Collie arrazakoak izatea. **687 222320.**

DENETARIK salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. **659 867287/ 699 461394.**

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramaten da. **676 242520.**



Bigarren eskuko musika instrumentuak salgai: akordeoiak, teklatuak, gitara elektrikoak eta gitara akustikoak. Informazio gehigorako **620 468282** edo itumriabilly@gmail.com.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. **948 585036.**



Bereta eskopeta salgai. AL-391 URIKA-2/TEKNYS modelo. 2012ko abenduaren 7an erosi. Tiro oso gutxi egindakoa eta oilagorretan bakarrik erabilia. Prezioa: 700 euro. Interesa baduzu deitu **647525516.**

DONEZTEBE. Hiru sukalde ditugu salgai. Diseinu modernoa, Silestone enzimarekin, kalitate handikoak. Ez eza zu galdu aukera bikain hau! Informazio gehigorako **630 510918.**



DENETARIK bertzelakoak

Donezteben arraindegia errentan eman nahi da. **661 542705.**

DENETARIK galdu/aurkituak

Beran **betaurreko graduatuak**, patilla pasta beltzekoak, **aurkitu** dituzte Berako postetxearen ondoan. Zureak badira deitu **948 630177.**

hemen
agertu
nahi
duzu?


egin zure erosketa
erran.eus en

IRAGARKIA 8
2 aldizkaritan
interneten EURO

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko btxekea; 4) www.ttipi.net bitartez



LUCIAK urteak bete ditu urriaren 16an. Auniz urte familiarren partez.



AITORREK bi urte beteko ditu urriaren 28an. Auniz urtez dantzari! Muxu haundi bat Lesakako familiarren partetik.



Urdazubiko **PABLO OLAIZOLAK** urriaren 10ean urteak bete zituen. 11 besarkada haundi Aimar eta Asier anaiei partez. Zorionak!



OIER ARRUBARRENA IRURZUN lesakarrak 5 urte beteko ditu urriaren 26an. Auniz urtez eta muxu handi bat familiarren partetik.



Berako **KAIET ERKIZIA ORDOKIK** eta atabxi **JAVIERREK** urriaren 24an 5 eta 65 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Sunbillako **UXUEK** zortzi urte beteko ditu urriaren 28an. Zorionak familia guztiaren partez. Egun polita pasa, mila muxu potolo eta segi beti bezain neska txintxo izaten!!



Zorionak Gartzaingo **AMOR** eta **UNAI ESCUDERO BARRENETXER** azaroaren 21ean urtea eta 7 urte beteko baituzte!!! Ongi pasa eguna Urdazubi eta etxeko famili guztiaren partez prestatu merendu goxo goxo!



Zorionak **MIKEL** eta bere amaxori urriaren 29an, 3 eta 33 urte betetzen dituztelako. Muxu izugarri bat aita eta batez ere Maren txikiaren partetik.



Bi sorgintxo hauek 4 urte beteko dituzte urriaren 28an. Ongi pasa printzesak eta muxu bat familiarren eta bereziki Ainhoa ahizparen partetik.



Zorionak, etxeko gizonak 2 urte betetzen dituen egunean. Famili guzian partez, aita, ama eta batez ere aita Eliaski eta amaxi Maritxuren partez! Muxu auniz



Urdazubiko Landibar auzoko **JULEN, ZUHAITZ, PABLO** eta **ISAIK** urteak bete dituzte eta azaroan **AITORREK** beteko ditu. 5 mutil hauei zorion eta auniz urtez Landibartarren partetik.



Urriaren 11n **MAIALENEK** 3 urte bete zituen. Zorionak berriz ere Zubieta eta Zozaiako familiarren partetik. Muxu haundi bat printzesa.



Elizondoko **MIKEL ERASOK** urriaren 29an 3 urte beteko ditu. Zorionak Oronoz Mugairiko amaxi, aitetxi eta Irurikato amaxiaren partez. Hiru muxu handi!



Bixito tiki honek azaroaren 15ean 2 urte beteko ditu. Zorionak polita, ongi pasa eta muxu erraldoi bat zure ahizpa eta familiarren partetik.



Sunbillako **HEGOA** eta **ANPAK** urriaren 22 eta 30ean urteak beteko dituzte. Auniz urtez familia guztiaren partetik baina bereziki amaxi zuri Hegoa ilobaren partez. Muxuak



ARITZ IPARRAGIRREK urteak beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak Arantzako eta Erreterriako familiarren partetik, bereziki Arantzako lehengusuen partetik: Izaro, Josu, Iñintza, Oskia eta Alaiaren partetik. Ongi pastu eta berendu goxo prestatu!!!!



Anizko **AIERT ZELAIETA AZKARATEK** 4 urte beteko ditu urriaren 27an. Zorionak terremoto! eta besarkada haundi bat familia guztiaren partetik.



Goizuetako **IREBERREK** lau urte beteko ditu azaroaren 7an. Zorionak gure etxeko erregeari ilargi, aita, ama eta Hernani, Goizuetako eta Usurbilgo familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu tiki!



ARITZ IPARRAGIRRE arantzarrak 4 urte beteko ditu azaroaren 3an. Zorionak amatto, atatto eta bereziki Oierren partetik. Ongi pastu zure egunean bihotza, auniz maite zaitugu!

EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

Urte osoan eskura izateko!



Mahai gaineko egutegiak
Modelo ugari aukeran
Trokelatuak,
paper edo PVCzkoak...



Paretan jartzekoak
Kontsultatu neurriak
hilabeteak ilargiekin,
euskaraz, elebitan...



Posterrak
Neurri handikoak
A1, A2, A3
paper lodian



Sakelekoak
55 x 85 mm
66 x 96 mm
Izkin borobilduak



Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

Jakinarazpena

2014ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

Ordaintzeko era:

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea:

- 2015eko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2015eko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekguarekin kobratuko da.

Etxalar, 2015eko urriaren 1a

Lehendakaria,

Miguel Maria Irigoien Sanzberro



Kolaboratzaileak:



ELIZONDO (Na)

AZAROAK 7 00:30 23:30 ATE IREKIERA

AURRETIK: 12€ / TAKILLAN: 14€

SALMENTA PUNTUAK

INTZA (ELIZONDO) / TITI (DONEZTEBE) / ATXASPI (LESACA) / ERREKALDE (BERA)

ONLINE: www.musikaze.com/gatibu



www.davidguapo.com

Una producción de: *Musikaze*

AURRETIK: 14€ / TAKILLAN: 16€

SALMENTA PUNTUAK

INTZA (ELIZONDO) / TITI (DONEZTEBE) / ATXASPI (LESACA) / ERREKALDE (BERA)

ONLINE: www.musikaze.com
www.ttipa-kultura.com

Me gusta

#quenonosfrunjanlafiesta

ELIZONDO

ABENDUAK 4 22:30

Ez izan zalantzarik, BirziklApp!



App honek hondakinak bereizten lagunduko dizu, birziklatzeko

Zalantzan zaude eta ez duzu argi non utzi hondakin mota batzuk? Jakin nahi al duzu nola birziklatzen diren ondoren? Inoiz baino errazagoa da; hartu zure mugikorra, ireki BirziklApp eta argitu zure zalantzak.



Android



Iphone

Jaitsi doan!!

Sustatzaileak - Promueven

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra



ecovidrio
ENTIDAD SIN ÁNIMO DE LUCRO



ecoasimelec

ecofimática

ECOLEC
FUNDACION

ECOLUM



écotic



European
Recycling
Platform



tragamóvil

Garatzailea
Desarrolla



Gestión
Ambiental de
Navarra, S.A.

Laguntzailea
Apoya



Baztango
Udala



Agencia
de Medio Ambiente

